

# DERRIGORREZKO ESKOLALDIRAKO IKASTOLEN OINARRIZKO CURRICULUM KOMUNA

BALORATZEKO ETA HOBETZEKO PROPOSAMENA  
(2008KO MAIATZA)

Bertsio laburtua

# PROIEKTUAREKIN BAT EGITEN DUTEN HEZKUNTZA ERAKUNDE ETA SEKTOREAK

AICE, Ikastetxeen Elkarte Independientea

AIF, Arabako Ikastolen Federakundea

BIDELAGUN, Bilboko Elizbarrutiko Ikastetxeetako Gurasoen Federakuntza

BIE, Bizkaiko Ikastolen Elkarte

BIGA BAI, Ipar Euskal Herriko Eskola Publikoetako Gurasoen Federazioa

CCDD, Bilboko Elizbarrutiko Ikastetxeak

EIB, Eusko Ikastolen Batza

ESKOLA GIRISTINOAK, Ipar Euskal Herriko Eskola Giristinoak

EUSKAL HAZIAK, Ipar Euskal Herriko Eskola Giristinoetako Guraso eta Irakasleen Elkarte

EHIK, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa

FAPACNE, Estatukoak ez diren Ikastetxeetako Ikasleen Guraso Elkarte Arabako Federazioa

FECAPP, Bizkaiko Guraso eta Ikasleen Federakunde Katolikoa

FEGUIAPA, Gipuzkoako Ikasle-Gurasoen Elkarte Federakuntza Librea

GIE, Gipuzkoako Ikastolen Elkarte

HUIS, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

IKASGE, EAeko Publikatutako Ikastoletako Gurasoen Federazioa

KRISTAU ESKOLA, EAeko Kristau Ikastetxeen Federazioa

NIE, Nafarroako Ikastolen Elkarte

SEASKA, Ipar Euskal Herriko Ikastolen Federazioa

SORTZEN-IKASBATUAZ, Euskal Eskola Publikoen Elkarte

SORTZEN GURASOAK, Sortzen Elkarteko Gurasoen Federazioa

UFEPA, Euskadiko Eskola Katolikoetako Guraso Elkarte Federakuntzen Batasuna

**Oharra:** "Derrigorrezko Eskolaldirako Ikastolen oinarritzko curriculum komuna", aipatzen diren erakunde eta sektoreekin batera egindako "Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculum Espezifikoa oinarritzkoa eta komuna" egitasmoan elkarrekin egindako lanaren egokitzapena da

## **ZUZENDARITZA:**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

EHIK, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa

KRISTAU ESKOLA, EAeko Kristau Ikastetxeen Federazioa

SORTZEN-IKASBATUAZ, Eskola Publikoen Elkarte

## **FINANTZAKETA:**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

# AURKIBIDEA

## Aurkezpena

### 1.- SARRERA

- 1.- Kontzeptuen azalpena
- 2.- Lanaren esparrua eta helburua
- 3.- Gaiaren garrantzia
- 4.- Proposamenaren ezaugarriak
- 5.- Ikas arloak eta curriculum diseinuaren ezaugarriak
- 6.- Informazioa, balioztapena eta erabakiak hartzeko prozedura eta epeak

### 2.- IKASTOLEN KOLEKTIBOAREN OINARRIZKO CURRICULUM KOMUNAREN ARDATZAK

- 1.- Ikastola taldearen oinarrizko curriculum komunaren printzipioak
- 2.- Oinarrizko hezkuntzaren xedeak
- 3.- Oinarrizko konpetentziak eta Hezkuntza-Gaitasun orokorrak
- 4.- Hizkuntza plangintza

### 3.- EUSKAL CURRICULUM ESPEZIFIKOA: IKAS ARLOAK

- 1.- Hizkuntzak eta Literatura
- 2.- Teknologia
- 3.- Musika eta Dantza
- 4.- Plastika eta Ikus adierazpena
- 5.- Gorputz hezkuntza
- 6.- Gizarte Zientziak
- 7.- Natur eta Osasun Zientziak

## INKESTA

# AURKEZPENA

“Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculumaren” proposamena unibertsitatez kanpoko Euskal Herriko edo Euskararen Herriko lurraldeetako hezkuntza sistemako hezkuntza eragileek elkarlanean egindako ekimenetik sortu da, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin hitzartuta eta hark diruz lagunduta. Ekimen hau bi urratsetan garatzen ari da: lehen urratsa burututa dago eta bigarrena da burutzeke dagoena eta lan honen aztergaia dena. Atarian aipatzen diren hezkuntza erakunde eta sektoreak elkarrekin egindako lanean oinarritzen da Ikastoletarako egokitu dugun proposamen hau. Funtsean proposamena bera da, baina hezkuntza sektore bakoitzak norberaren ezaugarriak erantsi ditu.

## **1. urratsa: Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculum osoa**

Lehen urratsean, “Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculum” (2006) plazaratu zen. Curriculumaren programa horrek ohikoak diren osagaiak jasotzen ditu: hezkuntzaren xedeak, hezkuntza kompetentzia orokorrak, eduki metadiziplinarrak, ikastarlotako kompetentzia orokorrak, arlotako edukiak, kompetentzia espezifikoak eta ebaluazio irizpideak. Hezkuntza eragile guztien partaidetza zabala ziurtatuz, curriculum horren baliospena eta hobekuntza proposamenak egin dira eta egindako ikerketa horren emaitzak, “Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculumaren baliospen eta hobekuntza proposamenak” (2007) txostenean plazaratu dira. Proposamena oso ondo baloratu da eta erabateko bertsio hobetua, hala nahi duten hezkuntza zerbitzu eta administrazioen eskura egongo da. Proposamena beti ere irekia eta borondatezkoa izaten jarraituko du.

## **2. urratsa: Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculum espezifikoa eta Ikastolen oinarrizko curriculum komuna**

Bigarren urrats honetan, Euskal Curriculum osoaren zati bat aurkezten da, Euskal Curriculum espezifikoa edo berariazkoa hain zuzen ere. Aurrekoarekin alderatuz, batetik, aurrekoaren zati bat denez, laburragoa da, eta bestetik, onespina borondatezkoa izan arren, onesten dutenek indarrean jartzeko eta ebaluatzeko konpromisoa hartuko dute. Hala gertatzen bada, lehen aldia izango da Euskal Herriko ikastetxeek, euren borondatez eta euren arteko desberdintasun guztien gainetik, guztiontzako euskal kulturaren oinarrizko elementuak belaunaldi batetik bestera eskolaren bidez ziurtatzeko erabakia hartuko dena.


Aurreko hori izango da Euskal Herriko ikastetxe guztiek elkarrekin partekatu duten curriculum. Ikastolek ere, beste hezkuntza sektoreekin batera, Euskal Curriculum Espezifikoa oinarrizko eta komuna indarrean jartzeko eta ebaluatzeko konpromisoa hartuko dute. Baina Ikastolen taldeak baditu besteekiko bereizgarriak diren ezaugarri komunak, eta aurrekoarekin batera horiek ere urrats honetan aztertu eta adosteko bideak jarriko dira.

Urrats bakoitzak bere nortasun propioa du, baina bi urrats hauek batera ikusi behar dira, bata bestearen osagarri modura. Holograma batean gertatzen den antzera, Euskal Curriculumaren barnean plano desberdinak bereiz daitezke eta horietako bat da Euskal Curriculum Espezifikoa. Duela gutxi lehen urratsa aztertu eta baloratu zen eta bigarrena izango da oraingo honetan aztergai izango dena.

# 1. SARRERA

## 1.- KONTZEPTUEN AZALPENA

Lanaren izenburuaren esanahia hasieratik argitzea komeni da zertaz ari garen jabetzeko. Izenburuan, bereziki bi kontzeptu argitzea komeni da: a) Zer ulertzen da “Ikastolen Curriculumaz”? b) Zer ulertzen da “oinarrizkoa eta komunaz”?



### Euskal Curriculum osoa

Munduaren ikuspegi jakin batetik, gure kasuan euskal ikuspegitik, egindako euskal prozesuen eta produktuen hautaketa. Kultur prozesu eta produktuetan, Euskal Herrian berariatzkoak, bereganatu direnak eta unibertsalak sartzen dira. Edonongo curriculumean ehuneko zatirik handiena unibertsala izaten da. Euskal Curriculumean ere gauza bera gertatzen da. Alde horretatik begiraturaz, mendebaldeko zibilizazioaren eta mundializazioaren eraginez, Europako eta munduko curriculumen edukiak nahiko antzekoak dira. Ez ordea beti –bereziki giza-gizarte zientzietan– eduki horiek ikusteko, interpretatzeko eta adierazteko era.

### Euskal Curriculum Espezifikoa (propioa edo berariatzkoa)

Euskal Herrikoak, propioak edota bereganatuak diren edukiak osatzen dute Euskal Curriculum Espezifikoa. Beste era batera esanda, beste kulturengandik bereizten gaituena da. Batasunaren eta aniztasunaren fenomeno bikoitza (partikularra eta unibertsala) ondo uztartzea garrantzi handikoa da gaurko munduan elkarrekin bizitzen asmatzeko.

### Oinarrizkoa eta komuna

Curriculumaren edukiak “**oinarrizkotzat**” hartzen dira garapen pertsonalerako, eguneroko elkarbizitzarako eta lanerako garrantzizkoak direlako edota beste ikasketa batzuk eta bizitza osoan zehar ikasten jarraitzeko oinarriak finkatzen dituztelako. Eta “**komunak**” dira, ikasle guztien arteko kohesioa eta batasuna, batetik, eta aukeren berdintasuna, bestetik, eragiteko asmoz, gazte guztiek bereganatzeko eta partekatzeko hautatzen diren edukiak.

Kontzeptuen esanahiaren aldetik “oinarrizkoa” eta “komuna” oso ondo bereizten dira, praktikan ordea gehienetan bi kontzeptuak bat egiten dute, izan ere eduki bat komuna

izateko irizpidea eta baldintza oinarrizkoa izatea baita. Oinarrizko curriculum eta komuna bat etor daitezke edo ez. Bat datoz, oinarrizkoa elkarren artean partitzekoa dela pentsatzen denean, komuna alegia. Oinarrizkotzat jotzen dena definitzen da, eta oinarrizkoa eta ez besterik da guztientzako komuna dena; eta oinarrizkoa ez dena, zabalik uzten da, ikastetxe bakoitzak berearekin osa dezan. Desberdinak dira, oinarrizko curriculum eta komuna bat eta bera ez direnean; esate baterako, curriculumean oinarrizkoa dena eta ez dena batera jartzen denean, eta oinarrizkoa ez dena ere guztiok partitzeko ezartzen denean.

### **Ikastolen oinarrizko curriculum komuna**

Euskal Curriculum unibertsalaren eta espezifikoa berru garrantzi handikoak irizten diren eta ikastola guztiak partekatzeko, eta gutasuna eta berdintasuna eragiteko asmoz hautatzen diren edukiak eta kompetentziak osatzen dute Ikastolen oinarrizko curriculum komuna.

Oinarrizko curriculum	Curriculum komuna
Euskal hiritar gisara bizi ahal izateko <i>ezinbestekotzat</i> jotzen ditugun euskal kulturaren osagaiak	Euskal kulturaren osagai hauek berauek, partituak direnez, Euskal Herriaren curriculum komuna osatzen dute.
Hiritar unibertsal gisara bizi ahal izateko <i>ezinbestekotzat</i> jotzen ditugun kultura unibertsalaren osagaiak	Kultura unibertsalaren osagai hauek berauek, partituak direnez, Euskal Herriaren curriculum komuna osatzen dute.


### **Euskal Curriculum Espezifikoa oinarrizkoa eta komuna**

Euskal Herrikoak, propioak edo bereganatutako edukien artean, bizitzeko garrantzi handikoak irizten diren edukiak eta kompetentziak, eta Euskal Herriko gazte guztiak partekatzeko, eta gutasuna eta berdintasuna eragiteko asmoz hautatzen diren edukiak osatzen dute Euskal Curriculum Espezifikoa oinarrizkoa eta komuna.

Oinarrizko curriculum	Curriculum komuna
Euskal hiritar gisara bizi ahal izateko <i>ezinbestekotzat</i> jotzen ditugun euskal kulturaren osagaiak	Euskal kulturaren osagai hauek berauek, partituak direnez, Euskal Herriaren curriculum komuna osatzen dute.

## **2.- LANAREN ESPARRUA ETA HELBURUA**

Lanaren fase honetan<sup>1</sup>, Derrigorrezko edo Oinarrizko Hezkuntzara mugatzen gara. Hezkuntzaren etapa honetan hiru zehaztapen-maila edo hiru plano bereiz daitezke: euskal curriculum osoa, Ikastolen oinarrizko curriculum komuna euskal curriculum oinarrizkoa eta komuna eta euskal curriculum espezifikoa oinarrizkoa eta komuna.



<sup>1</sup> Euskal Curriculumaren egitasmoaren barruan, "Euskal Curriculum: kultur ibilbidea. Adituen ekarpena" plazaratu zen (2004). Proposamen hori bizitza osorako egin zen.

Aurreko azalpenen arabera, "Euskal Curriculum osoa" da guztien artean zabalena; jarraian, "Ikastolen oinarrizko curriculum komuna"; eta hestuen, "Euskal Curriculum Espezifikoa oinarrizkoa eta komuna". Azkeneko biak dira lan honen esparrua. Euskal Curriculum osoan, euskal curriculum ez espezifikoa (unibertsala) eta espezifikoa jasotzen dira. Unibertsala den kultur ondarea, burututa dagoen Euskal Curriculum osoaren proposamenaren eta Espainiako<sup>2</sup> (EAE<sup>3</sup> eta Nafarroa<sup>4</sup>) eta Frantziako<sup>5</sup> curriculum ofizialetan ere jasotzen da eta ziurtatuta dago. Berariazkoa den Euskal kultur ondarea, aldiz, ez da jasotzen Espainiako eta Frantziako curriculum ofizialetan, oso era mugatuan Nafarroako curriculumean eta era osatuagoan, baina lurralde batera mugatuz, EAEko curriculumean. Ikastolen oinarrizko curriculum komuna erabakitzea eta adostea talde horren eginkizuna da.

Euskal Curriculum osoan espezifikoa ere jasotzen den arren, ez ordea behar adinako zehaztasunarekin eta indarrean jartzeko eta ebaluatzeko konpromisorik gabe. Egoera horretan, Euskal Curriculum Espezifikoa oinarrizkoa eta komuna burutzeak lehentasuna du, batetik, hori delako bide egokiena Euskal Herri osorako proposamen komuna egiteko, eta bestetik, hori delako bidea Euskal Curriculum oinarrizkoa eta komuna erdiesteko.

Lan honen **helburu bat** Euskal Herri osorako, nahiz eta egoera desberdinak izan (ikasleen arteko desberdintasunak, herri eta herrialde mailakoak, administrazioaren eskolak ala hitzartuak, autonomi erkidego batekoak ala besteak, Espainiakoak ala Frantziakoak...), euren arteko desberdintasunen gainetik, Euskal Curriculum Espezifikoaren proposamen bateratua egitea, elkarrekin daukatena eta bereziki eduki nahi dutena adostea eta indarrean jartzeko eta ebaluatzeko konpromisoa hartzea da.

Beste era zehatzago batean esanda, derrigorrezko edo oinarrizko hezkuntza Euskal Herrian bukatzen duten gazte guztiek, Euskal Curriculum Espezifikoa oinarrizkoa eta komunaz jabetzeko lortu beharko litzuketen konpetentziak, eta horiek lortzeko beharko dituzten baliabideak (esperientziak, kontzeptuak, prozedurak, jarrerak) proposatzea da, egitasmoan parte hartzen duten hezkuntza eragileek, horiek adostu ondoren, indarrean jartzeko eta ebaluatzeko konpromisoa har dezaten.

Lan honen **beste helburua** Ikastolen oinarrizko curriculum komuna proposatzea eta hala badagokio onartzea da. Ikastolen artean ere aipatu berri ditugun desberdintasunak (herri, lurralde, administrazio, estatu...) badira eta kontuan hartzeko dira. Baina era berean, ikastolek talde moduan badute bere izaera propioa. Ikastolen sorreraren arrazoi nagusia eta izaeraren ezaugarri nabarmenena euskara eta euskal kultura ziurtatzea eta sendotzea izan da. Horretan sailtu dira eta sailatzen jarraitzen dute, baina harritzekoa bada ere, talde moduan ez dute zehaztu eta adostu zein den oinarrizko hezkuntza bukatzerakoan ikasleek lortu behar duten euskara maila eta euskal kulturaren inguruan lortu behar dituzten ezagutzak eta konpetentziak. Ikastolek, beste alde batetik, edonongo eskolen antzera, ikasleen garapen osoa lortzen laguntzeko eta bizitzarako prestatzeko funtzioa dute. Funtzio horiek betetzeko era bat baino gehiago dago, baina bidezkoa dirudi, taldea osatzen badute eta osatu nahi badute, funtzio horiek betetzeko norabide nagusiak definitzea eta adostea. Norabide nagusi horiek finkatzeko, hezkuntzaren eta oinarrizko hezkuntzaren xedeak eta hezkuntza konpetentzia orokorrak definitzea eta adostea da lan honen beste helburua.

---

<sup>2</sup> Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación

<sup>3</sup> 175/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskal Autonomi Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum sortu eta ezartzeko (EHAA, 2007-11-13)

<sup>4</sup> Decretos Forales 23-24-25/2007, de 19 de marzo, por el se establecen los currículos de las enseñanzas de Educación Infantil, Educación Primaria y Educación Secundaria Obligatoria en la Comunidad Foral de Navarra (BON, 17-08-2007)

<sup>5</sup> Loi d'orientation et de programme pour l'avenir de l'école, 2005/380

MEN (2006) École et Collège: tout ce que nos enfants doivent savoir. Le socle commun des connaissances et des compétences. CNDP/xO éditions, Paris.

### 3.- GAIAREN GARRANTZIA

*“Nor diren eta izaten jarraitu nahi duten herriak saiatzen dira, sortzen dituzten instituzioen bidez, eskolaren bidez, kasu, baina beste agenteen bitartekotza eta eragina ahaztu gabe (familia, gizartea, komunikabideak, erabaki politikoak, etab.), duten kultur ondarea belaunaldi batetik bestera ziurtatzen. Hizkuntza, kultura, indar politiko eta ekonomiko sendoak dituzten herriek badituzte mekanismo natural ahaltsuak, eta legearen babesa gainera, beren kultur ondarea luzatzeko. Hizkuntza eta kultura ahulagoa dituzten herriek neurri bereziak hartu behar dituzte beren hizkuntza eta kultura babesteko. Euskal Herrian ez da oraindik saio sistematizatu eta arrazoiturik egin beren curriculum propioa definitzeko”.* Ideia hori izan zen 1996. urtean Ikastolek egindako III. Batzarrean curriculum propioa garatzen hasteko abiapuntua.

Euskal Curriculumaren egitasmoa eraikitza bultzatzen gaituen gogo bikoitza da. Euskal kultur ondarearen oinarriko adierazpenen aukera egiten dugun neurrian Euskal Herria eraikitza eta hemengo hizkuntza eta kultur komunitatea eratzeko, gorpuzteko, sendotzeko eta garatzeko bideak eraikitzen ditugu. Halaber, kultur ondare hori Euskal Herriko eskoletako ikasleek barneratzen eta konpartitzen duten neurrian, guztiok elkarrekin bizitzeko sustrai komunak sortuko ditugu. Erreferentzia komunak konpartitzeak eta horrek eragiten duen gutasun-sentimenduak elkarrekin bizitzeko gogo pizten du. Baina, aurrekoarekin batera, egitasmo honek badu beste gogo osagarri bat: hizkuntza eta kultura anitzeko gure komunitatean, guztiok bateratzen gaituen kultur ondarearekin batera, aniztasunaren eta kulturartekotasunaren planteamendua guztiz beharrezkoa dela aitortzea eta bide horretatik ekitea.

Curriculum edo kultura komun baten proposamena justifikatzen eta oinarritzen duena da kultur erkidego bat izatea eta bereziki, izaten jarraitu nahi duen kultur erkidegoa izatea. Curriculum komunaren bitartez, kasu batzuetan koesistentzia dena, elkarbizitza bilaka daiteke eta beste batzuetan, elkarrekin bizitzeko nahiri eutsi geniezaioke eta indartu. Kalitatezko elkarbizitza armoniatsua lortzeko aldeko baldintzak areagotu egiten dira loturak daudenean. Zenbat eta lotura gehiago eta estuagoak izan, are handiagoa da elkarrekin modu harmoniatsuan bizitzeko aukera. Curriculumaren funtziotako bat hain zuzen ere, integrazio sozial eta kulturala da. Ikasle guztiak curriculum jakin bat partitzen duten heinean, identitate eta integrazio sozial eta kulturalerako loturak sorrarazten ari gara eta elkarbizitzarako giroa sortzen. Ikasle guztientzako komuna den kultura bermatzen ari garenean, gizarte-klase arteko desberdintasunik gabe eta pribilegiorik gabe, aukera berdintasuna sustatzen ari gara, eta honek aldi berean, integrazio soziala eta kulturala indartzen ditu.

Erreferentzia eta pertenezia mapa osatzen duten partituko espazioak, ugariak dira, eta guztiak behar dute izan curriculum komuna osatzeko jatorri, bai eta curriculum espezifikoa ere. Euskal Herrian bizi den ikasle batek, bere norbanako ezaugarri propioak ditu, ezaugarri sozio-kultural jakin batzuk dituen familia batean txertatuta dago, ezaugarri bereziak dituen herri/hiri batean bizi da, berariazko administrazioa duen herrialde jakin batean (EAE, Nafarroako Foru Erkidegoa, Pirinio Atlantikoen departamentua), ezaugarri kulturak jakin batzuk dituen lurralde batean (Euskal Herria), estatu jakin batean (Espainia, Frantzia), Europan eta munduan. Hautako aldagai batek hartzen badu bere baitan curriculum komunak izan behar duenaren definizioaren inposaketa eta monopolioa, gainerako espazio partitukoak aintzat hartu gabe, baztertzaila litzateke. Euskal Curriculumak planteatzen duena, curriculumaren definizioa guztien artean egitea da, partituko espazio guztien arteko emaitza izan dadila: Zer da guztien artean partitzen duguna eta bereziki partitu nahi duguna herri/hiri honetan eta lurralde honetan eta Euskal Herrian eta Espainian/Frantzian eta Europan eta munduan bizi garenak? Euskal Curriculum Espezifikoak egiten duen proposamena, oinarritzat jotzen diren euskal kulturaren hainbat erreferentzia Oinarriko Hezkuntza bukatzen duten ikasle guztiek partitatuak dira. Euskal Curriculum Espezifikoak, baztertzaila ez den erreferentzia eta pertenezia gunea proposatzen du, gainerako guneekin bateragarria dena.



Hauetako espazio bakoitzean identifika daitezke, aldi berean, barrurantz komunak diren osagaiak eta kanporantz desberdintzaileak direnak. Aipatutako gune bakoitzaren baitan osagai komunak antzemateak ez ditu eragotzi behar gune bakoitzaren baitako zein guneen arteko desberdintasunak. Adibidez, sexu, familia, herri, lurralde, nazio, estatu jakinekoak izateak, identifikazio eta desberdintasun osagaiak sortzen ditu; desberdintasun hau, gainerako pertenenzienganako baztertzalea izan gabe.

Federico Mayor Zaragozak (2004)<sup>6</sup>, liburuaren atarian esaten duena gogoratuz: *“Meritu handikoak iruditzen zaizkit “herritik mundura eta mundutik herrira” dagoen bidea egiteko aukera ematen duten kultur ibilbideak aurkitzeko ahaleginak, eta herri eta komunitate guztiak animatuko nituzke beraien kultur ibilbidea egin dezaten, ziur bainaiz aniztasuna eta gizaki guztion etorkizun komuna uztartzen dituzten bide guztiek bake kulturara daramatela, guztiok desio dugun beste mundu posible horretara”*.

Bide horretatik doaz, eta oso ondo baloratu dira gainera, “Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculum”aren (2006: 27) hezkuntzaren xedeak. Hezkuntza prozesuaren xedea pertsona gizabanako, gizartekide eta izadi-kide gisa ahalik eta gaitasun gehien garatzea dela esaten da, eta gizartekide izateaz zer ulertzen den azaltzerakoan hauxe esaten da: *“Euskaldun identifikatzea da, eremu kulturalan. Euskara eta euskal kultura bai eta erreferentziak eta berezko gainerako hizkuntzak eta kulturak onargarritzat hartuz, nork bere identitatea modu inklusiboan eraikitzeko identitate aniztan oinarrituta eta desberdintasunekin begirunezko eta bateragarria den erreferentzia eremu komuna eraikiaz, bizikidetzak baketsua bideratze aldera”*.

#### 4.- PROPOSAMENAREN EZAUGARRIAK

Aurreko azalpenetan Euskal Curriculum Espezifikoko oinarrikoa eta komunaren ezaugarriak zeharka aipatu dira. Jarraian era sistematikoagoan azaltzen dira.

##### Euskal Curriculum osoaren zatia

Euskal Curriculum Espezifikoa eta Ikastolen oinarriko curriculum komuna Euskal Curriculum osoaren zatia dira. Ohar hau gogoan hartzea garrantzizkoa da egiten den proposamena ondo ulertzeko. Bi proposamenak (espezifikoa eta osoa) berezituta aurkezten ditugu, espezifikoa delako une honetan aztergai dena eta horren balorazioa egin nahi dugulako, baina Euskal Curriculumaren proposamena osotasunez ulertu nahi bada, guztiak harremanetan jarri behar dira.

Euskal Curriculum osoan unibertetsala eta espezifikoa batera daude, baina espezifikoa kurtsibaz bereizten da. Hartara bien arteko osagarritasuna eta berezitasuna erraz ikus daitezke. Adibidez,

<p>3.- Adierazpen- eta komunikazio-technikak.</p>	<p>3.1. Lexiko teknika eta testuinguru bakoitzerako sintaxi egokia.          3.2. Administrazio-agiri komunak: eskaera-orria, emate-agiria, faktura...          3.3. Dagokion dokumentazio teknika interpretatzea edo gauzatzea: prozesu-orria, planoak, grafikoak, eskemak, katalogoak, tutorialak...          3.4. Marrazketa- eta software-tresnak erabiltzea, marrazketa teknikoan laguntzeko.          3.5. Irudikapena. Bistak eta perspektiba. Zirriborroa, krokisa eta delinearatuak. Eskalak, akotazioa.          3.6. Dokumentuak, memoriak edo aurkezpenak egiteko ofimatika-tresnak ezagutzea eta erabiltzea.          3.7.- <i>Zientzia eta teknikarako euskararen erabilpena. Zientzia eta teknikarako euskararen ezaugarriak eta arauak ezagutu eta hizkuntzaren erabilera zuzena ziurtatu ahozko ekarpen zein idatzietan.</i>          3.8.- <i>Euskarazko ofimatika-tresnak ezagutzea eta erabiltzea proiektuetako txostenak edo memoriak idazteko eta aurkezteko orduan.</i>          3.9.- <i>Euskarazko dibulgazio tekno-zientifikoa. Zientzia eta Teknologia gaien dibulgaziorako euskarazko aldizkariak eta web guneak ezagutzea eta erabiltzea</i></p>
---	---

<sup>6</sup> EHIK (2004): *Euskal Curriculum: kultur ibilbidea. Adituen ekarpena*. Ikastolen Elkartea, Eusko Jaurlaritzak, Donostia.

Euskal Curriculum Espezifikoa proposamena aztertzen bada, espezifikoa bere aldetik agertzen da, baina Euskal Curriculum osoaren eta espezifikoa arteko lotura adierazteko, Arloaren konpetentzia orokorrak bietan berdinak dira. Adibidez,

**Teknologia** arloaren bidez, osotasunez hartuta, ondorengo sei konpetentziak lortu nahi dira. Konpetentzia horietatik, lehen bostak curriculum unibertsalarekin lotu daitezke, eta 6. konpetentzia euskal curriculum espezifikoa bereziki.


- 1.- Baliabide teknologikoen bidez konpon daitezkeen arazoak aurkitzea eta argi eta zehatz definitzea, eta hainbat iturritan lortutako informazioa bilatzea eta aztertzea, arazoa konpontzeko aukera izateko.
- 2.- Arazo edo gai tekniko bati erantzuten dioten konponbideak diseinatzea, lan talde baten barruan parte hartze aktiboa izanez, funtzionamendua imajinatuz, beharrezko baliabideak aurreikusiz eta metodikoki jokatu ezarritako irizpideen arabera konponbide egokiena hautatzeko.
- 3.- Diseinua praktikara eramatea, gai edo arazo tekniko bat garatzeko edo arrakastaz konpontzeko, ezagutza zientifikoak eta teknologikoak metodikoki eta ordenatuta aplikatuz eta lan taldean eginkizunen banaketa onartuz.
- 4.- Lortutako emaitza ebaluatzea, arazo teknologikoa konpondu den ala ez egiaztatzeko, horren funtzionamendua eta lortu beharrek kalitatea eta baldintzak test baten bidez neurtuz. Horrez gain, egindako lan prozesua eta aukeratutako irtenbidearen ondorioak ebaluatzea.
- 5.- Teknologia arloko objektuak eta sistemak metodikoki aztertzea, horien funtzionamendua eta horiek erabiltzeko eta menderatzeko modurik onena zein den ulertzeko; eta horiek erabiltzeko eta fabrikatzeko arazoak eta hainbat eremutan aplikatu daitezkeen ezaugarriak zein diren jakitea.
- 6.- *Teknologia arloko objektuak eta sistemak Euskal Herriko produkzio prozesuetan, iraganean eta orain, lortutako emaitza esanguratsuenak metodikoki aztertzea eta inguruko herrialdekoekin alderatzea, zein arazori aurre egiten dioten identifikatuz eta emandako konponbidea, zein erabilitako prozesua bera, ebaluatuz, bildutako ezagutzek kultura teknologikoa aberasteko eta gizakiak, oro har, eta Euskal Herrikoak, bereziki, egin duen bilakaeraz jabetzeko.*

## Uztargarria lekuan lekuko curriculum ofizialekin eta ikastetxeko hezkuntza proiektuarekin

Euskal Herriko Ikastolen curriculum komunak, ez du eskolak ikas/irakasten duen guztia barnebiltzen, baizik eta Euskal Curriculumaren proposamen osoa erreferentziatzen harturik, uztargarria da lekuan lekuko curriculum ofizialekin, eskola-sektore bakoitzaren hezkuntza proiektuko ezaugarriekin, eta eskola bakoitzaren inguru hurbileko kultur ezaugarriekin (berariazko euskal kultura eta ukipeneko kulturak), eta, oro har, eskola bakoitzaren hezkuntza proiektuarekin. Osagai hauek guztiak eratuko dute Euskal Herriko ikastetxe bakoitzeko curriculumak.

## Proposamen irekia eta malgua

Proposamen hau irekia eta malgua da eta eskola sektore bakoitzaren (ikastola, kristau eskola, administrazioen eskola) esku jartzen da, dagoen horretan onar dezaten ala bakoitzaren ezaugarrien arabera osatu, moldatu edota mugatu dezaten. Kontuan hartzekoa da ez dela berdina euskal kulturaren presentzia eta atxikimendua Euskal Herriko lurralde eta eskola sektore desberdinetan. Baldintza horietan Euskal Curriculum espezifikoa proposamena era malguan ulertzea zentzuzkoa da, sektore bakoitzak bere egoeraren arabera erritmorik egokiena hautatu dezan. Bestetik, sektore bakoitzak baditu bereizgarriak diren ezaugarri komunak, hala nola bere izaera propioaren ezaugarriak eta hezkuntza proiektuan azpimarratzen dituen baloreak. Euskal Curriculumaren egitasmoaren helburua ez da homogeneotasuna lortzea, bakoitzaren berezitasunak errespetatuz, Euskal Curriculum espezifikoa dagokienez oinarritzkoak diren gutxienezko elementu komunak adostea baizik. Hori lortzea aurrera pauso garrantzizkoa litzateke.



## Euskal Herrirako oinarrizkoa eta komuna


Gure proposamena, Euskal Herrirako oinarrizkoa eta komuna den Curriculum Espezifiko zehaztea besterik ez da. Proposamen horretan Euskal Herrian bizitzeko ezinbestekoak diren kompetentziak islatzen diren heinean, oinarrizko curriculumtzat jotzen duguna osatzen ariko gara. Proposamen hau Euskal Herriko ikastetxeek partitu eta bere egiten duten heinean, aukera berdintasuna eta bizikidetzaren sustatzen ariko gara, eta hau da curriculum komunaren oinarria.

Euskal Herriko guztiontzat oinarrizkoa eta komuna izango dena, eskola sektore bakoitzak bere hautua egin ondoren jakingo da. Gerta daiteke, eta hori gertatzea aurre ikusten da, eskola sektore bakoitzak definitzen dituen oinarrizkoak eta komunak ez izatea sektore guztietan berdinak. Desiragarria da ahalik eta adostasun maila handiena lortzea, baina aurrera pauso handia litzateke oinarrizkoak diren edukien artetik gutxieneko batzuk adostea eta horiek aplikatzeko eta ebaluatzeko konpromisoa hartzea. Lehen aldia litzateke eta bidea egiten hasteko eta aurrera begira sendotzeko aukerak irekitzen dira.

## Kulturartekotasunaren bidetik

Antropologoek diotenez giza espezieko oso antzeko beharrak ditugu. Adibidez, J.M. Barandiaranek (1985)<sup>7</sup> gizabanakoen eta gizataldeen beharren sailkapena egiteko zazpi ardatz bereizi zituen:

- *Nola lortuko ditut janari-edariak eta osasuna?* Oinarrizko behar horren erantzuna inguruneak eskaintzen dituen aukerei lotuta dago, batetik, eta ingurunearen eta gizakiaren elkarrekin, bestetik; gizakiak ekoizpen ekonomikoaren, merkaturatzearen, teknologiararen eta abarren bidez, oinarrizko behar horientzako kultur irtenbide espezifikoak aurkitzen ditu.
- *Nola babestuko naiz?* Giza taldeek etxebizitza, janzkera...moduen bidez erantzuten diete behar horiei, baita defentsa moduen bidez ere.
- *Nola lortuko dut mundua ezagutzea eta behar ditudan materialak eta indarrak nire esku jartzea?* Galdera horren erantzuna giza taldeen eta izateriaren zientzia eta teknologia garapenaren historian daude.
- *Nola lortuko dut nire parekoen laguntza eta nola antolatuko dut gizarte bizitza?* Behar horren irtenbideak sortu ditugun gizarte antolaketak adierazten dute: familia, auzoa, herria, herrialdea, estutua, nazio komunitateak, eskola, sindikatuak, alderdiak, elkarteak, etab.
- *Nola komunikatuko naiz nire kideekin?* Behar hori hizkuntzen eta komunikatzeko bitartekoaren bidez betetzen da, eta hizkuntza idatzia eta ahozkoa dira komunikazio modurik garrantzitsuenak, baina ez bakarrik.
- *Nola egingo ditut atsegina eta gustokoak ditudan gauzak?* Behar hori plastikaren, musikaren, dantzaren, joku/jolas eta abarren bidez gauzatzen da.
- *Nor naiz ni, zer da gizakia, zein bere xedea?* Galdera horren erantzuna dira erlijioak, sinismenak, sinboloak, mitoak, etab, patua azaltzen, esanahia ematen eta gizakia zergatik eta zertarako bizi den galderari erantzuten saiatzen direnak.



<sup>7</sup> BARANDIARAN, J.M. (1985): *Euskal Herria. Diapositiba bilduma*. SEIE-GIE, Donostia.

Behar horiek gizaki eta giza talde guztiek dituzte, baina horien erantzunak historikoak eta kulturalak dira, beraz, ez uniformeak, aldakorrak baizik. Euskal Herrian, kultur adierazpen espezifikoa daude (Euskal Curriculum espezifikoa): elikadura, gastronomia, janzkera, lekuzeko moduak, teknologia, gizarte eta politika antolaketa, elkarbizitza erak, zuzenbidea, hizkuntza/euskara, ahozko eta idatzizko literatura, joko/jolas eta kirolak, jaiak, musika eta dantza, arte plastikoak, mitoak, sinboloak, erlijioa... Adierazpen horiek ere historikoak, dinamikoak eta era askotakoak dira, ez besteenak baino hobeak gureak baizik. Euskal Herrira bizitzera kanpotik etorri direnak ere badituzte behar horiei erantzuteko era bereziak, ez gureak baino hobeak beraienak baizik.

Jatorri eta kultura desberdinetakoak elkarrekin bizitzeko eta etorkizuna elkarrekin eraikitzeko, kulturartekotasuna beharrezkoa da. Kulturartekotasunak, harrerako lurraldeko kultura eta etorkinen kulturak ezagutzea eta errespetatzea eskatzen du. Giza espezieekook oso antzeko beharrak ditugula jakitea garrantzizkoa da, guztion arteko berdintasunaz jabetzeko. Bestetik, behar horiei erantzuteko kultura bakoitzak ematen dituen erantzunak ezagutzea, garrantzizkoa etnozentrismoaren arriskuak saihesteko eta besteen ekarpenak zureganatzeko.

Elkarbizitza erdiesteko kultur integrazio inklusiboaren bidea proposatzen dugu; hau da, batasuna eta aniztasuna uztartzen dituen bidea. Batasuna, Euskal Herrian elkarrekin bizi garen kultur talde guztien ondare komuntzat euskara eta euskal kultura hartuta, zabala eta eten gabe berritzen dena; eta aniztasuna, kulturartekotasunaren bidetik, talde bakoitzaren nortasuna errespetatzeko, ezagutzeko eta balioesteko. Oinarrizko ideia honako hau da: euskaldun sentitzeak ez du izan behar beste identitate batzuen bazterrazalea. Euskararen eta euskal kulturaren inguruan egituraturako erreferentzia komun eta partekatuaren barruan, pertsona bakoitzak eraiki behar du bere identitate propioa, indibidualizazio prozesu baten bidez, eta, prozesu horretan, hainbat identitate aukeren artean bakoitzak finkatuko ditu bere lehentasunak, baina guztiok konpartituko ditugu euskararen eta euskal kulturaren erreferentziak.

### **Ibilbide baten hasiera**

Egitasmo hau babesten duten eskolak onartzeko asmoz egiten den Euskal Curriculum Espezifikoa proposamena, ibilbide baten hasiera da. Ibilbide hori elkarrekin egiteko konpromiso bat eskatzen da, hau da, onartzen den proposamena indarrean jartzeko eta ebaluatzeko konpromisoa, hain zuzen ere.

Konpromisoa hartu aurretik eskola bakoitzak proposamena ebaluatzeko eta hobetzeko aukera izango du. Baina guztien ekarpenak zintzo jasotzen saiatu arren, oso zaila edo ezinezkoa izango da denok erabat ados egotea azken proposamenaren elementu bakoitzarekin eta guztiarekin. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua bideratzeko edukien hautaketa eta antolaketa funtsezko gaia da, baina erantzun bakarra ezinezkoa denez, beti izango da eztabaidagarria.

Egoera horretan, batetik, egiten den proposamena indarrean jartzeko eta ebaluatzeko asmoz egiten dela argi ikustea garrantzizkoa da, baina, era berean, garrantzizkoa da ulertzea ibilbide baten abiapuntua dela eta ez bukaera. Onartzen den proposamen hori indarrean jartzen eta ebaluatzen denean, etorriko dira praktikari buruzko hausnarketak eta horren ondorioz ezinbesteko egokitzapenak eta aldaketak.

Ibilbide horretan aurre ikustekoa da erritmo desberdinetan ekitea, batzuk bizkorrago eta motelago besteak, baina garrantzizkoena guztiok norabide berean abiatzea da. Erritmoak adosteko erarik badago hobe, baina norabidearen eta helburuan zentzuan ados egotea da funtsezkoena. Guztiok elkartzen gaituenaren gainean eraikiko dugu Ikastola eta Euskal Eskola.

Egitasmoaren ezaugarri hau gogoan hartzea komeni da egiten den proposamena zorrotzegi ez hartzeko eta hartu behar den erabakia testuinguru zabalagoan kokatzeko.

## 5.- IKAS ARLOAK ETA CURRICULUM DISEINUAREN EZAUGARRIAK


“Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculum” osoan, hezkuntzaren xedeak, ikas arlo guztietan uztartzekoak diren hezkuntza konpetentzia orokorrak eta eduki metadiziplinarrak proposatzen dira, eta ikas arlo bakoitzaren planteamendu osoa egiten da. Curriculumaren osagai horiek ere baliagarriak direnez Euskal Curriculum espezifikorako, ez ditugu hemen errepikatuko. Ohar hori kontuan hartzea garrantzizkoa da Euskal Curriculum espezifikoa, Euskal Curriculum osoaren barnean kokatzeko.

Euskal Curriculum osorako eta espezifikorako hautatzen diren ikas arloak berdinak dira, baina ikas arlo horien artean badira berariazko euskal kulturarekin harreman gehiago ala gutxiago dutenak eta horrek aldaketa batzuk egitea eskatzen du.

Euskal Curriculum osoa	Euskal Curriculum espezifikoa
1.- Hizkuntzak eta Literatura	1.- Euskara eta Literatura
2.- Matematikak	Euskal kulturaren badaude espazioa eta denbora neurtzeko eta zenbatzeko elementu espezifikoak, baina ez ditugu oinarritzat hartu.
3.- Teknologia	2.- Teknologia
4.- Musika eta Dantza	3.- Musika eta Dantza
5.- Plastika eta Ikus adierazpena	4.- Plastika eta Ikus adierazpena
6.- Gorputz Hezkuntza	5.- Gorputz Hezkuntza
7.- Gizarte Zientziak	6.- Gizarte Zientziak
8.- Mundu ikuskerak eta Erlijioak	Ikas arlo honen edukiak Gizarte Zientzietan uztartu ditugu
9.- Natur eta Osasun Zientziak	7.- Natur eta Osasun Zientziak
10.- Tutoretza eta Orientazioa	Ez dugu harremanik ikusten ikas arlo honen eta berariazko euskal kulturaren artean.

Euskal Curriculum espezifikoaren diseinua eta Euskal Curriculum osoarena berdinak dira.<sup>8</sup>

<sup>8</sup> Ikus, “Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curricula, 22-24 or.



Hala ere, ikas arloen barne egitura badaude aldeak. Adibidez,

	<b>Euskal Curriculum osoa</b>	<b>Euskal Curriculum espezifikoa</b>
<b>Sarrera</b>	Hezkuntza kompetentzia orokorrak lortzeko arloak egiten duen ekarpena deskribatzen da	Arloak euskal kulturarekin duen lotura deskribatzen da.
<b>Arloko kompetentzia orokorrak</b>	Arlo jakin batean lan egiteko hautatzen diren eta ebaluaziorako erreferentzia izango diren kompetentziak modu sintetikoan deskribatzen dira. Curriculum espezifikoarekin lotura duena kurtsibaz azaltzen da.	Euskal Curriculum osoaren eta espezifikoaren arteko lotura hobeto ikusteko, ez da aldaketarik egin.
<b>Ikaskuntzako edukiak</b>	Ikaskuntzako edukiak multzotan aurkezten dira, eta multzoak jarrerazko, kontzeptuzko eta prozedurazko edukietan antolatzen dira. Curriculum espezifikoarekin lotura duena kurtsibaz azaltzen da.	Bi multzotan aurkezten dira: multzo batean kontzeptuak eta bestean prozedurak eta jarrerak.
<b>Arloko kompetentzia espezifikoa eta ebaluazio irizpideak</b>	Arloko kompetentzia espezifiko bakoitza arloko kompetentzia orokorrekin eta eduki multzoekin lotzen da, eta ebaluaziorako erreferentzia zehaztu egiten du. Arloko kompetentzia espezifiko guztiak (curriculum unibertsala eta espezifikoa) azaltzen dira. Curriculum espezifikoarekin lotura duena kurtsibaz azaltzen da.	Euskal Curriculum espezifikoarekin zer ikusia dutenak soilik azaltzen dira.
<b>Ebaluazio irizpideak</b>	Arloko kompetentzia espezifiko bakoitzarentzat beharrezko irizten diren adina ebaluazio irizpide definitzen dira. Curriculum espezifikoarekin lotura duena kurtsibaz azaltzen da.	Arloko kompetentzia espezifiko bakoitzarentzat beharrezko irizten diren adina ebaluazio irizpide definitzen dira.

Ikas arloen barne eraketa funtsean berdina da, baina antolatzeko eran badaude aldeak. Euskal Curriculum espezifikoa diseinuan, arloko kompetentzia espezifikoko bakoitzaren inguruan, kompetentzia hori ebaluatzeko irizpideak eta ikaskuntzako edukiak batera azaltzen dira. Era honetan, kompetentzia espezifikoko, ebaluazio irizpide eta ikaskuntza edukien arteko lotura argiago ikusten da.

Sarrera	
Arloko kompetentzia orokorrak	

Euskal Curriculum Espezifikoa	
Arloko kompetentzia espezifikoa 1	Ebaluazio irizpideak
Kontzeptuak	Prozedura eta jarrerak

Arloko kompetentzia espezifikoa 2	Ebaluazio irizpideak
Kontzeptuak	Prozedura eta jarrerak

Arloko kompetentzia espezifikoa N	Ebaluazio irizpideak
Kontzeptuak	Prozedura eta jarrerak

## 6.- INFORMAZIOA, BALIOZTAPENA ETA ERABAKIAK HARTZEKO PROZEDURA ETA EPEAK

- Sektore bakoitzeko eragileen esku (ikastolak, kristau eskolak, administrazioen eskolak) geratzen da txosten honetan jasotzen den Euskal Curriculum espezifikoa dagoen horretan onar dezaten ala bakoitzaren ezaugarrien arabera osatu, moldatu edota mugatu dezaten.
- Proposamenaren informazioa, kontrastea eta baliospen prozesua sektore bakoitzak bere esparruan era autonomoan egingo du, baina prozedura berdina jarraituz eta ahalik eta era adostu eta bateratuenean.
- Prozesua lau fasetan gauzatuko da: a) Zuzendaritza teknikoak aurkezten duen proposamenaren onarpena eragileen aldetik jaso; b) Informazioa eskoletan zabaldu eta inkesten erantzunak jaso 2008.eko irailaren bukaerarako (ikus inkesta eredu); c) Inkestetako erantzunak analizatu eta hobekuntza proposamenak txertatu; d) Erabateko proposamena banatu eta erabakia, "Ikastolak: orain eta gero" txosteneko beste erabakiekin batera hartuko dira, 2008.eko abendua amaitu aurretik.
- Prozesu horren jarraipena eta koordinazioa zuzendaritza teknikoko kideen bidez egingo da.
- Sektore bakoitzean hartzen diren erabakiak, sektore hori osatzen duten ikastetxe bakoitzak bere egingo du. Erabakiaren bermea eta bideratzeko ardura sektore bakoitzeko eragileak hartzen du.
- Sektore bakoitzak bere erabakiak hartuko ditu, baina hartzen den erabakia hartzen dela, indarrean jartzeko eta ebaluatzeko konpromisoa hartuko da. Hartutako erabakien aplikazioa ebaluatzeko, sektore guztien arteko jarraipen batzorde bat izendatuko da.
- Sektore bakoitzeko eragileek konpromisoa hartuko dute beraien sareko ikastetxeak laguntzeko eta beharrezkoak diren baliabideak eskaintzeko (irakasleen prestakuntza, ikas materialak, ebaluazioa...). Eta, hala nahi bada, sektore desberdinen arteko koordinazio bideak gauzatuko dira.
- Prozesu honen amaieran agerpen publikoa egingo dute sektore guztiek batera (kristau eskolak, ikastolak eta administrazioen eskolak) Euskal Curriculum Espezifikoi buruz zer dugun eta zer eduki nahi dugun elkarrekin eta hori aurrera eramateko hartzen ditugun konpromisoak adierazteko.

## **2.- IKASTOLEN KOLEKTIBOAREN OINARRIZKO CURRICULUM KOMUNAREN ARDATZAK**

Ikastolen kolektiboaren oinarrizko curriculum komuna lau ardatzen inguruan egituratzea proposatzen dugu:

- 1.- Oinarrizko curriculumaren printzipioak
- 2.- Oinarrizko hezkuntzaren xedeak
- 3.- Oinarrizko konpetentziak eta hezkuntza konpetentzia orokorrak
- 4.- Hizkuntza plangintza

### **1.- IKASTOLA TALDEAREN OINARRIZKO CURRICULUM KOMUNAREN PRINTZIPIOAK**

Kontuan hartzen baditugu Ikastolen I. Kongresuan (1990) onartu ziren oinarrizko osagaiak, geroago (1996) III. Kongresuan erakundearen hezkuntza-helburu bezala formulatu zirenak, eta begiratzen badiegu 2006an ebaluatu zen “Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculum” proposamenari, eta prospektibaren ikuspegitik kokatzen baditugu gaurtik 2020 urteraino, ondorengo zutabeetan sostengatzen da ikastolen oinarrizko curriculum komuna:

#### **- Hezkuntza giza-eskubideen eta oinarrizko askatasunen sustatzaile**

Ikastolak bat egiten dute Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko (1948) 26. artikularekin, non pertsona orok oinarrizko ikasketak dohan egiteko duen hezkuntza-eskubidea aldarrikatzen den; bat egiten du hezkuntzaren giza nortasuna guztiz garatzeko eta giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetua indartzeko hezkuntza xedearekin; eta gurasoek lehentasunezko eskubidea dutela seme-alabei emango zaien hezkuntza mota aukeratzeko eskubidearekin.

#### **- Guztiontzako eskola barnehartzailea**

Ikastolak, egungo eta are gehiago etorkizuneko euskal gizartea kultur askotariko eta anitza dela eta izango dela aurre ikusiz, guztiontzako eskola inklusiboaren alde egiten dute, Euskal Herriko pentsaera eta jokaera sozial, politiko, erlijioso ezberdinak integratuz eta orekatuz, hau da maila sozial eta ekonomiko ezberdinetako pertsonen irekia, aukera-berdintasuna bermatzen duena, bere ikasleek Europan txertatuta eta munduarekin lotuta dagoen euskal gizarte kohesionatua batean bizitzen ikas dezaten.

#### **- Pertsonaren eta gizartearen eredia**

- Hezkuntza prozesuaren xedea, gizabanako, gizartekide eta izadikide gisa banaezinak diren pertsonaren dimentsioak, ahalik eta garapen-maila handiena eta orekatuena erdiestea da. Ikuspegi horretan oinarrituz, hezkuntzaren xedeen eta era berean bizitzaren arrakastaren lorpena ezagutzeko parametroak, pertsonak gizabanako gisa lortu dituen gaitasunen garapen-maila da batetik, gizartearen bizikidetzaren baldintzak eta gizartearen jarraipenaren eta garapen-maila hobetzeko egindako ekarpenak, bestetik, eta izadiaren zaintza eta iraunkortasun jasangarriaren alde egindako ekarpenak, azkenik.

- Bizitza osorako hezkuntzaren ikuspegi integral hori erdiesteko asmoz, ikastolek, “Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculum” proposatzen diren Hezkuntza konpetentzia orokorrak (ikasten eta pentsatzen ikasi, komunikatzen ikasi, elkarrekin bizitzen ikasi, norbera izaten ikasi eta egiten eta ekiten ikasi) sustatuko dituzte.



Hezkuntza konpetentzia orokor horiek ikas arloetan eta, oro har, bizitzako egoera guztietan uztartuz, Europako Parlamentuak gomendatzen dituen, pertsona guztiak beren asebetetze eta garapen pertsonalerako, herritar aktiboak izateko, gizarteratua egoteko eta enplegurako behar dituzten oinarrizko konpetentziak lortzera bideratuko dute Hezkuntza Proiektua.

-Ikastola bakoitzak oinarrizko heziketa eta bizitza osorako prestakuntzaren oinarriak finkatuko ditu, pertsonaren garapen osoa besarkatuz, beste prestakuntza maila batzuetarako eta lan-mundurako sarbideak prestatuz, eragile ekintzaileak eta profesionalak, ekonomikoak eta sozialak izateko prestatuz, bere bizitza zentzuz bideratzeko prestatuz, eta bere etorkizuna arduraz hautatzeko prestatuz.

-Ikastolak, hezkuntzaren ikuspegi integralaren barnean ondo kokatuz, berrikuntzaren eragile indartsu diren zientziaren eta teknologiaren ezagutzari eta erabilerari eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiei garrantzi berezia emango diote.

### - Euskal Eskola

-Komunitate guztien, herri guztien eginkizuna eta eskubidea da bere kulturaren dimentsio guztiak babestu, bizi, berregin eta garatzea, eta kultura korretako kideei transmititzea familiaren, eskolaren eta gainerako komunikazio moduen bidez. Ikastolen mugimenduaren sorrera eta ezaugarriak, euskara eta euskal kultura transmititzeko, garatzeko eta bultzatzeko konpromisoan oinarritzen da, beti ere irekita hurbileko eta hurruneko kulturetara.

-Ikastola bakoitzak euskararen eta euskal kulturaren inguruan batzen den identitate euskalduna proposatzen du, eta hizkuntzen eta kulturen arteko planteamendu integratzailea sustatzen, hizkuntzen eta kulturen arteko konpetentziak osagarritzat hartuz.

-Ikastola bakoitzak euskararen herrizat hartzen du **Euskal Herria**. Herri honek, era askotako ekarpenekin, bere historia eraiki du eta eraikitzen jarraitzen du Pirionetako bi isurialdeetan, eta mugarik gabeko espazio unibertsalera irekita ditu ateak, aldaketa etengabe dauden hizkuntza- eta kultura-ezaugarri berezi batzuk oinarri hartuta.

-Gainera, bere heziketa-lana garatzeko orduan, ikastola bakoitzak Euskaltzaindiak bezalaxe erabiltzen du **Euskal Herria** izena (2003), "Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa (Beherea eta Garaia) eta Zuberoak osatzen duten multzoa"

### Proposamena 1:

**Ikastola guztientzat proposatzen diren Oinarrizko curriculumaren printzipioak baliagarria dira gure Ikastolarentzat eta prest gaude gure Ikastolaren Hezkuntza eta Curriculum proiektuan jasotzeko**

## 2.- OINARRIZKO HEZKUNTZAREN XEDEAK

Ikastola bakoitzak ahalik eta giza garapen handiena lortzen laguntzen die bere ikasleei.

**Norbanako** gisa, hau da, ikasle bakoitzak bere biografia besteekin batera eraikitzen duen subjektu autonomo gisa ikusi behar du bere burua.

**Gizartekide** gisa, hau da, ikasle bakoitzak bere burua euskaldun gisa ikusi behar du kultura arteko mundu batean.

**Naturakide** gisa, hau da, ikasle bakoitzak izaki bizi eta giza espezieko kide bezala ikusi behar du bere burua, kosmosaren eta lurraren barruan.



Hauxe da Euskal Curriculumean bitziza osorako proposatzen den hezkuntzaren xedea:

“Norberaren, gizartearen eta naturaren errealitateak kritikoki ulertzeko, horietan eraginkortasunez ekiteko eta arduraz eraldatzeko baliabideak ematean datza hezkuntzaren xedea, era horretara, pertsonak, gizabanako gisa, gizartekide eta izadikide gisa ahalik gaitasun gehien gara dezaten”.

Oinarrizko hezkuntza bitziza osorako guztiontzako eta derrigorrezkoa den hezkuntza etapa da, eta pertsonaren garapen osoa lortzeko asmoz, hauek dira bere xedeak:

- a) Ikasleak helduarorako prestatzea, bai eta bitziza asebetea izateko prestatzea ere, gizabanako gisa, gizarteko herritar aktibo gisa eta natura zaintzearekin eta garapen iraunkorarekin arduratzen den pertsona gisa.
- b) Ikasleek euskal kulturaren eta kultura unibertsalaren oinarrizko elementuak ikas ditzaten lortzea eta geroko ikasketak egiteko eta lanean txertatzeko beharrezko bermeekin prestatzea.
- c) Bizi osoan etengabeko ikaskuntza garatzeko gai izateko ikasleak sentsibilizatzea eta gaitzea

### Proposamena 2:

**Ikastola guztientzat proposatzen diren Oinarrizko Hezkuntzaren xedeak baliagarriak dira gure ikastolarentzat ere eta prest gaude gure Ikastolaren Hezkuntza Proiektuan jasotzeko.**

### 3.- OINARRIZKO KONPETENTZIAK ETA HEZKUNTZA-KONPETENTZIA OROKORRAK


Europako Parlamentuak eta Kontseiluak (2006) etengabeko ikaskuntza eta prestakuntza bideratzeko asmoz zortzi oinarrizko kompetentzia edo kompetentzia-gako gomendatzen ditu. Espainiako LOE (2005) eta Frantziako Loi d’Orientation (2005) legeak Europako Parlamentuaren gomendioarekin bat datoz oinarrian.

Europar Batasuna	Espainia/LOE	Frantzia/Socle commun
1.- Ama-hizkuntzan komunikatzea 2.- Atzerriko hizkuntzetan komunikatzea	1.- Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia	1.- Frantsesa menderatzea 2.- Atzerriko hizkuntza bat praktikatzea
3.- Matematikarako kompetentzia eta zientzietarako eta teknologiarako oinarrizko kompetentzia	2.- Matematikarako kompetentzia 3.- Mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin interakzioan aritzeko kompetentzia	3.- Oinarrizko kompetentziak matematikan eta kultura zientifikoan eta teknologikoan
4.- Kompetentzia digitala	4.- Informazioa lantzea eta kompetentzia digitala	4.- Informazioaren eta komunikazioaren ohiko teknikak

		menderatzea
5.- Ikasten ikastea	7.- Ikasten ikasteko kompetentzia	
6.- Pertsonarteko kompetentziak eta herritar kompetentzia	5.- Gizarte-kompetentzia eta herritar kompetentzia	6.- Gizarte-kompetentzia eta herritar kompetentzia
7.- Iniziatiba eta izaera ekintzailea	8.- Autonomia eta iniziatiba soziala	7.- Autonomia eta iniziatiba
8.- Kontzientzia eta adierazpen kulturala	6.- Kulturarako eta arterako kompetentzia	5.- Kultura humanistikoa

Oinarrizko Kompetentzia horien artean, horietako batzuek zeharkako izaera handiago dute eta ez daude ikas arlo jakin batekin uztartuta denekin baizik: kompetentzia digitala, ikasten ikastea, iniziatiba eta izaera ekintzailea, pertsonarteko kompetentziak eta herritar kompetentziak eta bere neurrian hizkuntzarako eta komunikaziorako kompetentziak. Kompetentzia horiei “orokorrak edota metadiziplinarrak” deitzen zaie. Beste batzuk, gehiago lotzen zaizkie curriculumeko arloei edo ikasgai jakin batzuei: Matematikarako kompetentzia eta zientzietarako eta teknologiarako oinarrizko kompetentzia, Kulturarako eta arterako kompetentzia. Kompetentzia horiei “espezifikoak” deitzen zaie Oinarrizko kompetentzia guztiak garrantzitsuak eta beharrezkoak dira bizitzarako, baina ez dira era berean ikasten eta barneratzen. Zeharkako oinarrizko kompetentziak lortuko dira baldin eta ikas arlo guztietan uztartzen badira. Oinarrizko kompetentzia espezifikoak aldiz, ikas-arloaren bidez lortzen dira. Batzuk eta besteak bereiztea komeni da OCDEko DeSeCo/PISA, Unibertsitateko Tuning eta Euskal Curriculumean egiten den antzera.

“Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculum”ren egitasmoan, Ikastoletan oso ondo baloratu diren ondorengo Hezkuntza Kompetentzia Orokorrak proposatzen dira:




<b>1.- Pentsatzen eta ikasten ikasi:</b>	1.1.- Informazioaren interpretazioa: ulermenean oinarritutako pentsamendua. 1.2.- Informazioa sortzea: pentsamendu sortzailea 1.3.- Informazioaren ebaluazioa: pentsamendu kritikoa 1.4.- Erabakiak hartzea 1.5.- Arazoak konpontzea 1.6.- Baliabide kognitiboen erabilera
<b>2.- Komunikatzen ikasi:</b>	2.1.- Ahozko hizkuntza 2.2.- Hizkuntza idatzia 2.3.- Beste hizkuntza batzuk 2.4.- Gizarte komunikabideen baliabideak

	2.5.- Informazio eta Komunikazio Teknologia 2.6.- Kontzientzia sozio-komunikatiboa
<b>3.- Elkarrekin bizitzen ikasi:</b>	3.1.- Pertsonarteko harremana 3.2.- Gatazkak konpondu 3.3.- Parte hartze demokratikoa 3.4.- Elkarlana eta talde lana 3.5.- Aniztasuna (generoa eta kultur aniztasuna)
<b>4.- Norbera izaten ikasi:</b>	4.1.- Gorpuztasuna 4.2.- Norberaren kontrola eta oreka emozionala 4.3.- Nork bere buruaren estimua 4.4.- Autonomia 4.6.- Sentsibilitate estetikoa 4.6.- Integrazio pertsonala
<b>5.- Egiten eta ekiten ikasi:</b>	5.1.- Analisia: informazioa hartzea eta gordetzea 5.2.- Sormena: ideia berriak eta konponbideak lantzea 5.3.- Berrikuntza: ideiak gauzatzeko 5.4.- Ebaluazioa 5.5.- Ekite prozesuaren aplikazioa

Euskal Curriculumean proposatzen diren bost Hezkuntza kompetentzia orokor hauek J. Delorsen zuzendaritzapean UNESCOri egindako txostenean oinarritzen dira eta ondo uztartzen dira aipatu ditugun OCDEko DeSeCo/PISA, Unibertsitateko Tuning eta Europako Parlamentuaren bidetik proposatzen diren oinarritzko kompetentziekin.

Bost Oinarritzko hezkuntza kompetentzia orokor horien bidez, irudian azaltzen den modura, hezkuntzaren xedeak lortzeko bidea egiten da eta, era berean, kompetentzia orokor horiek, prozedura eta jarrera metadiziplinarretan gauzatu, ikas arloetan uztartzen diren neurrian, Europar Batasunak gomendatzen dituen eta Espaniak eta Frantziak ezartzen dituzten zortzi oinarritzko kompetentziak lortzeko bidea egiten da.



### Proposamena 3:

Europako Parlamentuak eta Espaniako LOEk eta Frantziako Loi d'Orientation-ek proposatzen dituzten Oinarritzko kompetentziak eta Euskal Curriculumean proposatzen diren Hezkuntza kompetentzia orokorrak baliagarriak dira gure ikastolarentzat eta prest gaude gure ikastolaren Hezkuntza eta Curriculum proiektuan jasotzeko.

## 4.- HIZKUNTZA PLANGINTZA

### Hautatutako hizkuntzari buruzko ikuspegia

Hizkuntzak konpetentzia orokorrak garatzeko duen garrantzia ikusita, arloaren helburua ikasleei hizkuntzak behar bezala erabiltzen erakustea da, gizarte bizitzaren eta bizitza pertsonalaren alor guztietan. Helburu horrek finkatu egiten du curriculumean jasotzen den hizkuntzari buruzko ikuspegia: hizkuntza hautazko zeinuz osatutako sistema da gizakiek elkarren artean komunikatzeko erabiltzen dute. Hizkuntza sistema bat dela esatean, hizkuntzen ikuspegi estrukturala azpimarratzen da; izan ere, hizkuntzen baitako osagaiak balioa eta esanahia izango dute baldin eta elkarren artean lotzen badira eta osotasunari buruzko erreferentzia egiten badute. Hala ere, sistema horien baitako osagaiak erabilpen zehatzen inguruan egituratzen dira, eta erabiltzen direnean dute esanahia. Sistema eta komunikazioa erabat lotuta daude, hizkuntzaren egitura diskurtsoan eguneratzen da eta horregatik, curriculum diseinu honen oinarria hizkuntzaren ikuspegi diskurtsiboa da.

Hizkuntzak eta Literatura arloaren curriculuma hezkuntza konpetentzia orokorren arabera diseinatzen bada, hizkuntzaren ikuspegi diskurtsiboarekin lotzen da eta horrek ondorio zuzenak dakartza berekin, bai konpetentzien formulazioan, baita edukien aukeraketan. Arloaren helburua ikasleek duten komunikatzeko konpetentzien garapena izanik (komunikazioaren eta ekoizpenaren prozesu bikoitzean), konpetentzien eta edukien oinarria hizkuntzaren erabilpenaren ikaskuntza izango da, ezaguera eta esperientzia iruditatzeko. Ondorioz, eduki nagusiak testuen generoak izango dira, horietan gauzatzen baitira edozein eremutako gizarte erabilpenak. Halaber, hizkuntzaren sistema aztertzeke (testuinguru mailan, testu mailan, esaldien eta hitzen mailan) erabilpen horien hausnarketan oinarritu beharko da, baita horietatik sortutako testuekin egindako lanean ere.

Egungo gizartean geroz eta garrantzitsuagoak dira komunikabideak (irratia, prentsa, telebista...) eta gero eta gehiago erabiltzen dira informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT): horrelako gizarte batean berebizikoa da behar bezala komunikatzeko gaitasuna izatea eta, horregatik, Hizkuntzak eta Literatur Arloak kontuan hartu beharko du teknologia horiek ondo erabiltzeko behar diren konpetentzien garapena ere

### Eleaniztasuna, euskara ardatz hartuta

XXI. mendeko gizartea eleanitza da. Egungo gizartean, globalizazioaren mendean, komunikazio baliabideak gorantz doaz, bai eta pertsonen eta nazioarteko harremanen mugikortasuna ere. Gizarte eredu horretan ezinezkoa da hizkuntza gutxitu bati eustea eta suspertzea –euskara– hizkuntza hori gizarteko hizkuntza bakartzat hartzen bada. Euskaldunen etorkizuna eleanitza da. Euskarak iraun ahal izateko, hizkuntza horrek nagusi izan behar du bere hizkuntz eremuan baina, horrekin batera, euskaldunek beste hizkuntza batzuk hitz egiteko gai izan behar dute. Bestela, euskara bera arriskuan egongo litzateke. Ondorioz, helburu nagusia bi osagaiak elkartzea da: batetik, euskarak bere hizkuntz eremuan behar duen garapen osoa lortzea eta, bestetik, euskaldunak beste hizkuntzak hitz egiteko gai izan daitezela lortzea.

Beharrezkoa izango da Euskal Herrian bizi direnek euskararen normalizazioarekiko konpromiso aktiboa hartzea eta euskara hizkuntza nagusitzat hartzea. Gainera, hizkuntza sakonki ezagutu eta behar bezala erabiltzen jakin beharko dute. Horrekin batera, nazioarteko komunikazioaren baitako hizkuntza nagusietako bat menderatzeko gai izan beharko dute. Azkenik, Estatuen arteko mugaren bi aldetara dauden bi lurraldeen kultur batasuna lortzeko, beharrezkoa izango da herritarrek beste Estatuko hizkuntza nagusiarri buruzko funtsezko ezaguerak izatea. Ikastolek hizkuntza horiek guztiak erabiltzeko eta ikasteko aukera bermatu beharko dute eta, ondorioz, ikaskuntza prozesua bideratu beharko da helburu hori ziurtatu ahal izateko.

## Curriculum integratua

Hizkuntza bakoitza ez da bere aldetik garatzen, beste hizkuntzekin inolako harremanik gabe; aitzitik, hizkuntza bakoitza modu integratuan garatzen da. Bada konpetentzia linguistiko orokor bat, hizkuntzen arteko konparaketa, kontrastea eta horien arteko etengabeko elkarrekintza kudeatzen duena. Konpetentzia orokor horren sustapena funtsezkoa da konpetentzia eleaniztun integratua eta orekatua sortu ahal izateko. Hala dio Hizkuntzen erreferentzi marko europar bateratuak:

*“Ikuspegi horretatik, hizkuntz hezkuntzaren helburua erabat aldatzen da. Helburua ez da elkarrekin zerikusirik ez duten bizpahiru hizkuntza ikastea, jatorrizko hiztunen ereduari jarraituz. Aitzitik, helburua oinarritzko hizkuntza bilduma bat sortzea da, bertan hizkuntz konpetentzi guztiak agertuko direlarik”*

Alde horretatik, Europako Hizkuntzen Erreferentzia Bateratuen Esparruak esandakoaren arabera, curriculum proposamen bakar batean bildu dugu euskararen, dagokion harremanetarako hizkuntzaren eta nazioarte mailako hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntza, ikasi beharreko hizkuntza guztiak barne hartzen dituen *curriculum integratuaren* diseinuaren bidez. Horrela, ikaskuntzaren osagarritasuna ahalbidetzen da, baita hizkuntza bakoitzak dituen berariazko hizkuntz alderdiak alderatzeko lana eta hizkuntza batean ikasitakoaren aplikazioa ere, beste hizkuntza batzuetan.

Ondorioz, arloaren konpetentzia orokorren eta blokeen definizioa eta oinarritzko edukiak aukeratzeko irizpideak berberak izango dira curriculumaren baitako hizkuntza guztientzat; horrela, horien garapen osagarria bermatuko da. Berariazko konpetentziak definitzean eta , bereziki, horiek ebaluazio irizpideen bidez definitzen direnean –betiere deskripzio esparru komuna erabiliz- hizkuntza bakoitzaren lorpen maila zehaztuko da.

Hizkuntzak mailakatzeko proposamena egiteko orduan, aipatutako Europako Hizkuntzen Erreferentzia Bateratuen Esparruan oinarritu gara. Nahitaezkoa izango da euskara eta harremanetarako hizkuntza (gaztelania edo frantsesa, kasuaren arabera) ondo menderatzea (bere kasako erabiltzailea B2 maila Europako Erreferentzia Esparruan); bestalde, hirugarren hizkuntzaren maila txikiagoa eskatuko da (bere kasako erabiltzailearen maila apalagoa: B1 maila) eta, azkenik, oinarritzko maila eskatuko da (oinarritzko erabiltzailea: A2 maila), Euskal Herriko harremanetarako beste hizkuntzan.

### Hizkuntza plangintza



#### Hegoaldean:

Euskara eta Gaztelania (B2)  
Ingelesa (B1)  
Frantsesa (A2)

#### Iparraldean:

Euskara eta Frantsesa (B2)  
Ingelesa (B1)  
Gaztelania (A2)

#### Proposamena 4:

**Ikastola guztientzat proposatzen den Hizkuntza plangintza baliagarria da gure Ikastolarentzat eta prest gaude gure Ikastolaren Hezkuntza eta Curriculum proiektuan jasotzeko**

### 3.- EUSKAL CURRICULUM ESPEZIFIKOA: IKAS ARLOAK

#### 1.- HIZKUNTZAK ETA LITERATURA

Hizkuntza plangintzaren proposamena aurreko atalean egiten da eta horregatik ez dugu hemen arlo horren aipamenik egiten. Hizkuntzak eta Literatura arloko konpetentzia espezifikoak eta ebaluazio irizpideen proposamen zehatzak dokumentu osoan aurkezten dira.

#### 2.- TEKNOLOGIA

<b>1.- Euskal Herrian erabili izan diren eta erabiltzen diren materialak, energia iturri eta teknologia adierazpen esanguratsuak</b>	
<b>Konpetentzia espezifikoa</b>	<b>Ebaluazio irizpideak</b>
<b>1.- Euskal Herrian, iraganean eta orain, ekonomiaren hiru sektoretan, erabili izan diren eta erabiltzen diren materialak eta horiek aldatzeko erabili eta erabiltzen diren energia eta teknologiaren adierazpen esanguratsuak ezagutu eta bisitatu, eta erantzun espezifiko horiek beste herrialdeetako kulturetatik jaso ditugun eraginekin harremanetan jarri.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskal Herriko eraikuntza esanguratsuetan erabilitako materialak eta egitura erresistenteak deskribatzen ditu.</li> <li>- Euskal Herriko artisautza eta industria tradizionalen erabiltzen ziren baliabideak (tresnak, energia iturriak, teknikak, ...) eta konpontzen zituzten arazoak identifikatzen ditu.</li> <li>- Euskal Herriko burdingintza modernoaren ezaugarriak bereizten ditu eta ekarri dituen abantailez eta beste hainbat ondorioez jabetzen da.</li> <li>- Euskal Herriko naturako baliabideen eta energia iturrien erabilpenari buruzko kezak adierazten ditu eta modu kritikoan egiten du.</li> <li>- Euskal Herriko tradizio teknikoa ezagutzeko interesa adierazten du.</li> </ul>
<b>2.- Zientzia eta teknikarako euskararen erabilera arauak</b>	
<b>Konpetentzia espezifikoa</b>	<b>Ebaluazio irizpideak</b>
<b>2.- Zientzia eta teknikarako euskararen erabilpen arauak zaindu eta euskarazko ofimatika-tresnak nahiz teknologia gaien dibulgaziorako euskarazko aldizkari eta web guneak ezagutu eta erabili informazioa bilatzeko eta aurkeztu behar diren dokumentuak osatzeko orduan.</b>	<p>Zientzia eta teknikarako euskararen arauak zaintzen ditu eta lexiko egokia erabiltzen du ahozko eta idatzizko azalpenetan</p> <p>Euskarazko baliabide ofimatikoak, zuzentzaile ortografikoak, interneteko euskarazko bilatzaileak eta informazio kontsulta prozedurak erosotasunez menperatzen ditu.</p> <p>Euskarazko hiztegi teknikoak, teknologia gaien dibulgaziorako aldizkariak eta web guneak ezagutzen eta erabiltzen ditu</p>

### 3.- MUSIKA ETA DANTZA

1.- Musika hizkuntza	
Konpetentzia espezifikoa	Ebaluazio irizpideak
<p><b>1. Zortziko eta ezpata-dantza konpasak ezagutu, ulertu eta erabiltzen jakin, berauen azalpena jasoz, bakoitzaren ezaugarriak bereiztuz eta praktikan arituz, bi konpas horiek barneratu ahal izateko eta, ondorioz, musika irakurketan eta sorkuntza saioetan erabili ahal izateko.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zortziko eta ezpata-dantza konpasak ezagutzen ditu.</li> <li>- Musika-irakurketaren hastapenak egoki erabiltzen ditu.</li> <li>- Abiadura egokia mantenduz irakurtzen du.</li> <li>- Konpas horietan idatzita dauden partiturak irakurtzen ditu.</li> <li>- Erritmo bi horiek belarriz bereizten ditu.</li> <li>- Zortziko eta ezpata-dantza konpasak erabiliz inprobisazioak egiten ditu.</li> <li>- Behar bezala azentuatzen ditu konpasak.</li> </ul>
2.- Euskal abestiak	
Konpetentzia espezifikoa	Ebaluazio irizpideak
<p><b>2. Euskal herri-kantak abestu era egokian, ahots- teknikaz baliatuz, doitasunez afinatuz, erritmoa zehazki erabiliz eta abestiak transmititzen duen mezuarekiko arretaz, euskal kantutegia ezagutzearren eta honen ezagutzaz gozatzeko, Euskal Herriko musika eta giza sustraiez jabetzeko, eta kanturako ahalmena, hala nola arretaren eta talde-lanaren baloreak garatzeko, musika-irizpide baten jabe eginez.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hautatutako 100 euskal kantutegiko abestiak, teknika egokia erabiliz interpretatzen ditu.</li> <li>- Afinazioa, une oro zaintzen du, erregistro komenigarriara egokituz behar denean.</li> <li>- Hitzen ahoskera eta erritmoa uztartzen ditu.</li> <li>- Abestiaren mezua ulertuz abesten du.</li> <li>- Kantuarekiko interesa erakusten du, kantua kultura-adierazpen den aldetik.</li> <li>- Abestean, intentsitate, karakter eta abiaduraren ñabardurak modu egoki batean erabiltzen ditu.</li> <li>- Akzioa eta gogoeta orekatzen ditu.</li> </ul>
3.- Euskal musikaren historia eta entzuketa	
Konpetentzia espezifikoa	Ebaluazio irizpideak
<p><b>3. Euskal Herriko musika-konposatzaileen obra ezagutu, herri-musika zein kultura, egilearen, estiloaren eta konposizioaren informaziorik behinenak lortuz, musika entzunez eta beronen egitura formala, dimentsio estetiko eta komunikatiboa aztertuz, musika-tresnak bereiztuz beren soinu eta formarengatik, Euskal kultura hobeto ezagutzearren eta, ondorioz, honen gozamaena areagotzeko.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Entzuketaren aurreazalpenean agertutako kontzeptuak bereganatzen eta erabiltzen ditu.</li> <li>- Obra baten oinarrizko ideiak ezagutzen eta adierazten ditu.</li> <li>- Egilearen zein interpretatzaileari buruzko datuak azaltzen ditu.</li> <li>- Bai forma eta bai soinuarengatik musika-tresnak ezagutzen ditu.</li> <li>- Musika-tresnak, zein bere familiakoekin sailkatzeko gai da.</li> <li>- Musika-estilo desberdinen funtzioaz jabetzen da eta honi buruz modu koherentean argudiatzen du.</li> <li>- Beharren arabera musika aukeratzeko eta erabiltzeko gai da.</li> </ul>
4.- Euskal musikaren interpretazioa	
Konpetentzia espezifikoa	Ebaluazio irizpideak
<p><b>4. Euskal erreperitorioaren obrak ezagutu eta jo, teknika, espresioa eta musika-tresnari egokitzapena zainduz, aldi berean soinu-iturri desberdinak esperimintatuz, musika-tresnen parte hartzea aztertu eta ondorioak atereaz, musika-tresnaren bat autonomiaz erabili ahal izateko, sormena eta interpretaziorako tresna erabilgarri batez jabetzeko, garapen pertsonala</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hautatutako 20 obra instrumentalak interpretatzen ditu.</li> <li>- Jotzean, gorputz-jarrera egokia du.</li> <li>- Espresioa zaintzen du.</li> <li>- Jotzerakoan, musika-tresna egokia hautatzen du.</li> <li>- Taldearekin enpastatzen eta bere eskuhartze egoki neurtzen badaki.</li> <li>- Arreta gordetzen badaki eta itxaronaldiak joaldiekin behar bezala tartekatzen ditu.</li> <li>- Interpretazioa hobetzeko gogoia, ekinean adierazten du.</li> <li>- Bere iritzia egoki azaltzen du, errespetuz eta aurrera egiteko jarreraz.</li> </ul>



lantzeko eta talde lanaren onurak ahalbidetzeko.	
5.- Dantzak	
Konpetentzia espezifikoa	Ebaluazio irizpideak
5. Euskal Herriko dantzak ezagutu eta dantzatu, informazioa jasoz, irizpide tekniko eta estetikoak erabiliz, tradizioa eta sorkuntza orekatuz, baliabideak egokituz, kultura, gozamina, garapen pertsonala eta soziala lortzearen.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hautatutako 11 dantzak dantzatzen ditu.</li> <li>- Erritmoari eusten dio dantzatzean.</li> <li>- Arintasunez eta ziur mugitzen da.</li> <li>- Dantza egitean, teknika egokia erabiltzen du.</li> <li>- Dantza desberdinak bereizten ditu.</li> <li>- Dantzatzean, espazioa menperatzen du.</li> <li>- Dantzaren koreografiaren interesa adierazten du.</li> <li>- Hobetzeko proposamenak azaltzen eta argudiatzen ditu.</li> </ul>

## 4.- PLASTIKA ETA IKUS ADIERAZPENA

1.- Euskal Herriko artearen adierazpen eta autore nagusiak	
Konpetentzia espezifikoa	Ebaluazio irizpideak
1.- Euskal Herriko Artearen estilo nagusietako arte adierazpen garrantzitsuenak bai eta artegile esanguratsuenak ere ezagutu, bereizi eta aztertu, denboran, espazioan eta testuinguru historikoan egokiro kokatuz, ondare kolektibo baten elementu gisa baloratuz	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Koloreak hautematerakoan kulturak, oro har, eta euskal kulturaren ikuskerak duen eraginaz (kolore hitzak, atsotitzak...) jabetzen da.</li> <li>- Badaki zein diren Euskal Herriko artearen eta arkitekturaren adierazpenik eta autorerik adierazgarrienak.</li> <li>- Obrarik eta autorerik adierazgarrienak dagokien garaiarekin lotzen ditu</li> <li>- Garai bakoitzeko artelan eta arte mugimenduen ezaugarri bereizgarri adierazgarrienak deskribatzen ditu.</li> <li>- Euskal Herriko lanen eta autoreen ezaugarriak eta Mendebaldeko testuingurukoak lotzen ditu.</li> <li>- Euskal herriko arte adierazpenak balioesten ditu.</li> <li>- Euskal Herrian gaur egun sortzen den arte adierazpenarekiko interesa eta jakin mina azaltzen du eta bertze kulturetakoekin harremantzeko gai da.</li> </ul>
2.- Ikus-sistema berrien sorkuntza: zinea Euskal Herrian	
Konpetentzia espezifikoa	Ebaluazio irizpideak
2.- Euskal Herrian sortutako zinema, euskaraz egindakoa eta Euskal Herriari buruzkoaren adibideak ezagutu eta aztertu, gure ondare kulturalaren jakitun izateko eta ikus entzunezko adierazpenaren interpretazioan eta sorkuntzan lagungarri izateko.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskal Herrian sortutako zinema, euskaraz egindakoaren eta Euskal Herriari buruzko hainbat adibe ikuskatu eta aztertzen ditu.</li> <li>- Euskal Herrian sortu diren animazio filmerik ezagunenak ikuskatu ditu eta genero honek duen garrantzia balioesten du.</li> <li>- Euskal Herrian ospatzen diren zinemaldi nagusien oinarritzko informazioa ezagutzen du.</li> <li>- Euskal filmategia zer den badaki.</li> <li>- Euskal Herriko zinemagintza interpretatzeko eta kritiko izateko baliabideak eskuratu ditu.</li> <li>- Euskal Herriko zinemagintza hizkuntzagatik, kulturagatik eta egungo irudiaren mundura hurbiltzeko gaitasuna ematen duelako balioesten du eta berarekin gozatu egiten du</li> </ul>
3.- Artisautza: artearen eta herri kulturaren elkargune gisa	
Konpetentzia espezifikoa	Ebaluazio irizpideak
3.- Euskal Herriko artisautza-lan tradizionalak ezagutu eta aztertu, jatorria, materiala eta forma kontuan izanik, eta estetikaren eta erabilgarritasunaren	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskal Herriko artisautza tradizioa identifikatzen du eta artisautza-produktuak kultur ondare gisa balioesten ditu.</li> <li>- Artisautzarako erabilitako naturako materialen, formen, testuren eta koloreen aberastasuna eta aniztasuna behatu eta balioesten du</li> <li>- Artisautzan erabiltzen diren hainbat erreminta eta tresna ezagutzen ditu</li> </ul>

aldagaiak barne hartuz, ezagutza horiek plastika sorkuntza lanetan erabili ahal izateko, aberastu eta osatzeko eta arte-sorkuntzaren izaera globala eta disziplinarterkoa baloratzeko bide gisa duten balioak jabetu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Adierazpen, sorkuntza eta berrikuntza-kontzeptuak artisautza-prozesuan aplikatzen ditu.</li> <li>- Artisautza-objektuak eginez eskulanetarako trebetasunak erabili eta garatzen du</li> <li>- Erabakiak hartzean eta arazoei irtenbideak bilatzean autonomiaz, ekimenez eta konfiantzaz jokatzeko du.</li> </ul>
<b>4.- Museoak eta erakusketak</b>	
Konpetentzia espezifikoa	Ebaluazio irizpideak
4.- Euskal Herriko interesik eta esanahirik handieneko museo eta erakusketak ezagutu, aztertu eta gozatzea. Ahal denean irtenaldi, bisitaldi eta ibilbide artistikoen bidez eta zuzeneko behaketaz baliatu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskal Herriko museo nagusiak eta erakusketetako artelan nagusiak ikusi eta aztertu ditu.</li> <li>- Ikusi eta aztertutako artelanek zein kalitate estetiko duten eta horien aurrean sentimenduak adierazteko gai da.</li> <li>- Ondare artistikoarekiko errespetuzko jarrera azaltzen du eta zaindu, babestu eta ondorengo belaunaldiak igorri behar den ondasuntzat hartzen ditu.</li> </ul>

## 5.- GORPUTZ HEZKUNTZA

<b>1.- Euskal jolas eta jokoak</b>	
Konpetentzia espezifikoa	Ebaluazio irizpideak
1.- Euskal jolas eta jokoak ezagutu, horien gizarte eta kultur esanahiaz jabetu, egoki egiten saiatu, emozioak eta sentipenak ulertu eta adierazi, eta jolas eta joko horien artean batzuetan zaletu eta menderatu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Badaki euskal jolas eta jokoak zerrendatzen eta horien jatorria azaltzen eta kokatzen.</li> <li>- Badaki jolas eta joko bakoitzari dagokion lekua zein den, zein den bakoitzaren sare sinbolikoa, norekin, zein material behar den eta zein diren arauak.</li> <li>- Garaian garaiko euskal tradizio ludikoak ezagutzen ditu eta badaki horien esanahia eta parte hartzeko baldintzak.</li> <li>- Badaki zein diren euskal jolas eta joko batzuetako pertsona ospetsuenak.</li> <li>- Euskal jolas eta jokoetan parte hartzen du eta ezagutzen eta errespetatzen ditu jolas eta joku horien arauak.</li> <li>- Joku eta jolas bakoitzari dagokion jarrera egokia azaltzen du.</li> <li>- Badaki irabazten eta galtzen.</li> <li>- Saiatzen da jolas eta jokoetan ahal duen onena ematen eta hobetzeko ahaleginak egiten ditu.</li> <li>- Taldean egiten diren jolas eta jokoetan arduratsua da, iniziatiba hartzen du eta elkar lankidetzarako prest dago.</li> <li>- Joku eta jolasen bitartez, komunikazioaren hiru egoera hauetan ondo moldatzen daki: bakarka/kidearekin, aurkariarekin/gabe, ziurtasunarekin/gabe.</li> <li>- Badaki jolas eta jokoetan bizitzen dituen emozioak (pozak, frustrazioak...) hitzez eta gorputzaren keinuz adierazten eta behar denean kontrolatzen.</li> <li>- Norberaren ezaugarriekin hobeto egokitzen diren euskal jolas eta jokuak menderatzen ditu eta zaletasuna erakusten du.</li> </ul>
<b>2.- Natur jardueraren bidezko ezagutza kulturala</b>	
Konpetentzia espezifikoa	Ebaluazio irizpideak
2.- Natur jardueretan oinarrituz, eskolaren inguruko zein Euskal Herriko inguruak eskaintzen dituen aukerak erabili, gorputzaren garapenarekin batera ingurune	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Inguru fisikoan ondo orientatzeaz gain, leku estrategikoak bilakatzeko gai da.</li> <li>- Gaitasun osoa du mapa baten arabera ibilaldi motz zein luze bat egiteko autonomia osoaz.</li> <li>- Parte zuzena hartzen du talde lanean zein kolaborazio lanetan</li> </ul>

<b>fisikoa eta kulturala ezagutzeko eta maitatzeko.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ziurtasuna eta lege neurriak zorrotasunez betetzen ditu</li> <li>- Ezagutza kulturak handia lortu du bere herriaren ingurumenarekiko</li> <li>- Atsegin handiz parte hartzen du mendi eta natur jardueren inguruko kirol ekintzetan.</li> <li>- Parte hartzeaz gain eskua botatzen du ekintza desberdinen inguruko antolaketetan</li> </ul>
---	--

## 6.- GIZARTE ZIENTZIAK

1.- Non bizi gara eta nola antolatzen dugu espazioa? Euskal Herria bidegurutze eta harreman lekua	
Konpetentzia espezifikoa	Ebaluazio irizpideak
<b>1.- Euskal Herriaren inguru fisikoaren oinarrizko ezaugarriak eta aniztasuna ezagutu, espazioan kokatu eta modu egokian interpretatu, aldaketak identifikatu eta bizilekuak giza-harremanetan, kulturen, ekonomian eta, oro har, herrien eta pertsonen izaeran eta jokamoldeetan duen eraginaz jabetzeko eta ekintzapide pertsonal arduratsuen bidez praktika koherenteak sustatzeko.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gai da Euskal Herriko eskala ezberdinetako mapatan Bizkaiko Golkoa, eta erliebe unitate nagusiak (mendikateak, mendi nahiz ibai nagusiak ) egoki kokatzeko, koordinatu geografikoak erabiliz.</li> <li>- Gai da Euskal Herriko mapa mota ezberdinak (erliebe mapak, klima mapak) eta klimogramak irakurtzeko eta interpretatzeko, teknikak modu egokian erabiliz.</li> <li>- Klimaren elementu nagusiak eta hauetan eragina duten faktoreak identifikatu eta deskribatzen ditu eta Euskal Herriko klimen ezaugarriak adierazteko erabiltzen ditu, baita gizakiaren bizitzan nola eragiten dioten edo eragin diezaioketen adierazteko ere.</li> <li>- Euskal Herriko paisaia nagusien elementu fisiko nabarmenenak ( erliebe, klima, ur...) konparatu eta laburbiltzen ditu, espazioan kokatuz eta giza-taldeei ematen dieten aukerekin erlazionatuz:</li> <li>- Euskal Herriko paisaia-unitateak behatzen ditu, bere elementuen ezaugarriak zehaztuaz, erlazionatu eta erkatzen ditu, mapatan kokatzen ditu eta giza taldeek paisaiatan duten eragina aztertzen du.</li> <li>- Ingurune naturaletan giza ekintzen eragina identifikatzen eta adierazten du, aldaketa prozesuak sistematikoki behatzeko jarraibideak modu egokian erabiliz, bere kausa eta ondorio ezezkorrak murrizteko hartu behar liratekeen neurriak eta jarrerak adieraziaz.</li> </ul>
2.- Zein eta zenbat gara? Demografiaren egitura eta dinamika	
Konpetentzia espezifikoa	Ebaluazio irizpideak
<b>2.- Euskal Herrian azken bi gizaldietan bereziki egon diren mugimendu demografikoak, aroak eta horien arrazoiak eta ondorioak ezagutu informazio egokia aukeratuz, adierazpen grafiko desberdinak interpretatuz eta ezagutza hori adierazpen bide ezberdinez komunikatu, demografiaren dinamikak kulturen, hizkuntzan, ekonomian duen eraginaz jabetzeko eta elkarbizitzarako jarrerak lantzeko.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskal gizarteko mugimendu demografikoei buruzko datuak eta estatistikak, egungoak zein iragan hurbilekoak, biltzeko gai da, eta horiek deskribatzen ditu demografia-kontzeptuak, grafikoak eta mapak zuzen erabilia, eta denboran alderatu ondoren izandako aldaketataz, bereziki emigrazioak eragindakoaz, jabetzen da.</li> <li>- Informazio bilatzeko estrategia ezberdinak egoki erabiliz, egungo euskal egoera demografikoaren joera nagusiak ondorioztatzeko gai da, horiek izan ditzaketan ondorio sozial, ekonomiko, kultural eta abarrekin erlazionatzen ditu.</li> <li>- Euskaldunak historian munduan zehar nola zabaldu diren ezagutzen du, hauen kopurua, bizileku nagusiak eta migrazio mugimenduen dimentsio sozialari buruzko informazio bilatzeko teknologia berriak egoki erabiliz.</li> </ul>
3.- Nondik gatoz? Euskal Herriaren bilakaera historikoa Europan eta Munduan	
Konpetentzia espezifikoa	Ebaluazio irizpideak
<b>3.- Euskal Herriko gizateriaren</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskal Herrian bizi den gizateriaren sorrera eta historiaurreko gizartearen</li> </ul>

<p>sorrera, historiaurrea, antzinatea eta erromatarkuntza garaitik gaur arte bizi izan den prozesu politikoaren, sozialaren, ekonomikoaren, eta ideologikoaren, arrasto nagusiak ezagutu, dokumentazio iturri desberdinez baliatzeko teknikak landuz, ikerketa historikoaren metodologia erabiliz, eta ibilbide horretan emandako gertaerak denboran eta espazioan egoki kokatuz, horiek gaur egungo errealitatea (politikoa, soziala, ekonomikoa...) nola baldintzatzen duten jabetzeko.</p>	<p>bizimoduak utzi dituen arrasto nagusiak ezagutzen ditu, idatzi gabeko dokumentu historikoak interpretatzeko jarraibideak eta teknikak egoki garatuz.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ezagutzen du eta egoki deskribatzen ditu historiaurreko eta historiako gertakari esanguratsuenak, idatzizko eta ez idatzizko iturrietatik informazioa bilatzeko jarraibideak egoki landuz.</li> <li>- Zenbait garaitako mapa historiko batzuetatik abiatuta, Euskal Herriaren lurraldeetako sorrera, bilakaera eta gertaera historikoen ezaugarri nagusiak deskribatzen ditu.</li> <li>- Euskal herriko historiako aldi eta gertaera esanguratsuenak, denboran eta espazioan kokatzen ditu, historiako ohikoen diren konbentzioak eta kronologia-unitateak erabiliz. (ardatz kronologikoak, frisoak, etab. ) ezaguera historiko horiek gaur egungo arazo nabarmenak ulertzeko erabiliaz.</li> <li>- Informazio iturriak helburuaren arabera egoki aukeratzeko gai da, informazio esanguratsua bildu, eta euskarri egokietan erregistratzen du.</li> <li>- Gertakari jakinei buruzko ikuspegi desberdina duten dokumentu historikoak kritikoki aztertzen ditu.</li> <li>- Jasotako informazioa berrantolatzeke gai da sintesi prozedurak (laburpen, eskema, koadro, grafiko eta abar) erabiliz, egiten zaizkion buruzko galderen ondorioak era egokian aurkeztuaz.</li> <li>- Dokumentu historikoak kritikoki interpretatu ondoren bertako informazioa idatziz eta ahoz komunikatzeko gai da hiztegi egokia erabiliz.</li> <li>- Euskal Herriko gertaera historiko esanguratsuen kausa eta ondorioak identifikatzeko gai da euren arteko loturak zehaztuz eta kausalitate anitza kontuan izanik.</li> </ul>
---	---

#### **4.- Zein dira mundu ikuskerak eta erlijioak?**

Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
<p><b>4.-Euskal Herriko historiaurreko eta historiako mundu ikuskerak, mitologia eta erlijioen elementuak identifikatu eta elkarrekin lotu, horien esanahia eta egun duten presentzia balioesteko.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskal Herriko historiaurreko eta historiako mitologia eta erlijioen elementuak ezagutzen ditu,</li> <li>- Atal eta biografia garrantzitsuak ikertzeko oinarriko urratsak egoki lantzen ditu, hauen bidez euskaldunon kosmobisioa ulertzeko eta garatzeko.</li> <li>- Euskal Herriko iraganeko sinbologia erlijiosoaren zenbait elementu identifikatzeko gai da.</li> <li>- Euskal mitologiako irudiek herriarentzako zuten balioa eta esanahiaz jabetzen da.</li> <li>- Kristautasunaren mezu nagusia eta Euskal Herrian utzitako ondarea ezagutzen eta baloratzen ditu.</li> <li>- Islamaren eta judaismoaren mezu nagusia eta Euskal Herrian utzitako ondarea ezagutzen ditu</li> </ul>

#### **5.- Nola bizi gara elkarrekin eta nola konpontzen ditugu arazoak? Zuzenbidea**

Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
<p><b>5.- Euskal Herriak bere ibilbide historikoan zehar ezagutu dituen gatazka soziopolitiko eta kulturalak ezagutu, denbora eta espazioan ondo kokatu eta horien funtsezko arrazoiak zorrotzasunez eta sistematizazioaren bidez interpretatu, gure egungo gizartean ematen diren arazo eta gatazka pertsonal zein kolektiboak hobeto ulertzeko eta</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskal Herriak ezagutu dituen gatazka soziopolitikoak alderdi guztiei erreparatuta modu kritikoan aztertzen ditu, gatazkek aztertzeke eta elkarrizketaren bidez lantzeko protokoloak eta jarraibideak modu egokian landuz.</li> <li>- Euskal Herriak ezagutu dituen gatazka sozial nagusiak modu kritikoan aztertzen ditu, gutxienezko zorrotzasunaren eta sistematizazioaren bidez eta bibliografia nahiz lehen eskuko dokumentu iturriak egoki erabiliz eta egoera injustuen aurrean hauek orekatzeko ahalegina egiten du.</li> <li>- Bere inguru hurbilean dauden gatazkek identifikatu eta deskribatzen ditu , naturaltasunez bere izaera onartu eta hauei aurre egiteko prozedura bakezaleak erabiltzen ditu, arazo horiek elkarbizitza hobetzeko aukera bezala ikusiaz.</li> </ul>

<p>interes komunekeo gaien kudeaketan modu aktiboan eta arduratsuan parte hartzeko eta bizikidetzarako arauak elkarren artean eraikitzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkarbizitzarako arau eta legeetara jotzen du gatazkaren bati konponbidea eman edota mota ezberdinetako gizarte-gatazkari aurre egiteko.</li> <li>- Elkarriketa eta prozedura bakezaleak defendatzen ditu pertsonen, taldeen eta herrialdeen arteko gatazkak konpontzeko.</li> </ul>
--	---

### **6.- Nolakoak dira eta nola funtzionatzen dute erakundeek?**

Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
<p><b>6.- Euskal Herriak historian zehar bere burua antolatzeko xedearekin osatu dituen legedi zein erakunde politikoen funtsa eta egitura, sorrera eta garapena, baita gaurko gizartearen erreferentzia-koak gertatzen zaizkigun taldeena ere (familia, eskola, herria ...) ezagutu eta hauek baldintzatzen dituzten kanpo nahiz barneko faktoreak zein antolakuntza egiturak eta ohiko funtzionamendua taldelanean kritikoki aztertu, erakunde horietan jarrera arduratsuzak partehartzeko.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasleen pertenezia eta erreferentzia taldeetan (familia,eskola,herria...) parte hartzen du modu eraikitzailean, arduratsuan eta solidarioan.</li> <li>- Euskal Herriak bere burua antolatzeko xedearekin osatu dituen legedi zein erakunde politikoen sorrera, bilakaera historikoa ezagutzen ditu, hauek baldintzatzen dituzten kanpo nahiz barneko faktoreak zein antolakuntza egiturak eta funtzionamendua kritikoki aztertuz.</li> <li>- Ikasleak parte hartzen duen maila ezberdinetako erakundeetan ( familia, eskola, udalerrria...) dauden balio demokratikoak identifikatzen /onartzen ditu, eta erakunde hauetako ezarritako arauak errespetatuaz, desadostasunei aurre egiteko tresnatzat hartzen ditu.</li> <li>- Parte hartzen duen demokrazia urriko erakunde eta taldeen funtzionamenduaren aurrean kritiko agertzen da, hauek hobetzeko proposamen eta ekimenak aurrera eramanez.</li> <li>- Eskala desberdinetako mapatan Euskal Herriko banaketa politiko-administratibo nagusiak kokatzen ditu, Estatu espainiar eta frantsesaren barneko antolaketa politiko-administratiboaren barne, eta Europar Batasuneko kide, Euskal Herriko lurralde antolaketa identifikatuz,</li> <li>- Egungo euskal legedietan lehengo foruen arrastoak identifikatu eta aztertzen ditu.</li> </ul>

### **7.- Nola lortzen ditut beharrezkoak zaizkidan gauzak? Ekonomia**

Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
<p><b>7.- Euskal Herriko zein berau osatzen duten lurralde historiko bakoitzeko ekonomi sektoreetako urrats nagusien historia, eta egungo gizartearen antolaketa eta funtzionamendu ekonomikoa ezagutu, hainbat iturriren bitartez lortutako informazioaz baliatuz eta ikerketa lan txikien bidez antolaketa ekonomiko horretan parte hartzen duten eragile desberdinen arteko korrelazio esanguratsueni buruzko norbere interpretazioa eta arrazoitzea komunikatuz.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lurraldeka zein eskualdeka, Euskal Herriko ekonomi sektoreen jatorria, garapena eta etorkizuneko aukerak, IKT, grafiko eta mapak erabiliaz deskribatzen ditu, ikerketa lan txikiak eginaz eta hainbat iturriren bitartez lortutako informazioaz egoki baliatuz.</li> <li>- Informazio ezberdinak interpretatuz, nekazaritza ustiapen sistema nagusien ezaugarriak lantzen ditu eta euskal nekazaritzaren egungo arazoak aztertzekeo gai da.</li> <li>- Industria jardueretan gertatzen ari diren eraldaketak deskribatzen ditu, Euskal Herriko ekoizpene nagusiak kokatuaz, eta sektore honen egungo errealitatea aztertzen du iturri ezberdinetatik deslokalizazio eta globalizazio ekonomikoen eragina ondorioztatuz.</li> <li>- Hirugarren sektoreak izandako bilakaera eta eraldaketak identifikatzen ditu, eta eraldaketa horien ondorioz Euskal Herrian harreman ekonomiko eta sozialetan gertatzen ari diren aldaketa aztertzen ditu.</li> <li>- Mota guztietako bitartekoak erabiltzen ditu ( IKT, estatistika..) jarduera ekonomikoari buruzko informazioa lortzeko. Jasotzen duen informazioaren zuzentasuna eta objetibotasuna egiaztatzekeo gai da.</li> </ul>

### **8.- Zer ezaugarri nagusik definitzen du egungo gizartea eta nora goaz Euskal Herrian?**

Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
<p><b>8.- XXI. mendeko Euskal Herria definitzen duten ezaugarri nagusienak identifikatu, informazio iturri desberdinak erabiliz eta modu kritiko eta</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- XXI.mendeko Euskal Herria definitzen duten ezaugarri nagusiak identifikatzen ditu eta hauen garapena baloratzen du informazioa bilatzeko eta aukeratzeko jarraibideak egoki erabiliz.</li> <li>- Informazio iturri historikoetara, nahiz gaur egungo iturri ezberdinetara jotzen du, idatzizko zein ahozko materiala, komunikabideak (prentsa, telebista,</li> </ul>

<p>eraikitzaile batez aztertu eta baloratu, etorkizuneko proiektu komunitateko modu aktiboan parte hartzeko eta trebetasun sozialak eta elkarbizitzarako jarrerak lortzeko.</p>	<p>zinea...) zein IKTk, gertaera jakin baten aurrean dauden interpretazio ezberdinak jaso, konparatu eta interpretatuaz, eta edozein informazio iturrik izan ditzakeen ikuspegiak diskriminatzen da.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gizarteko ekintza eta gertaeren azalpeni buruzko jakinmina garatu du komunikabide eta sareko informazio eta mezuen aurrean jarrera kritikoa adieraziaz.</li> </ul>
---	--

## 7.- NATUR ZIENTZIAK

<b>1.- Euskal Herriko biodibertsitatea</b>	
Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
<p><b>1.- Zientzien oinarriko kontzeptuak eta mundu naturaleko objektuak eta prozesuak erlazionatu, propioki Euskal Herrikoak direnak, eta, horretarako, oinarriko kontzeptu horiek zentzua hartzen duten legetan, ereduetan eta teoretan artikulatu.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontzeptu orokorrak Euskal Herriko adibide espezifikoaren bidez osatzen ditu.</li> <li>- Euskal Herriak propioki sortutako kontzeptu zientifikoak sistema materialen portaerekin eta propietateekin erlazionatzen ditu.</li> <li>- Materia eta materiaren aldaketak sailkatu eta ordenatu egiten ditu, ezaugarrien eta propietateen arabera.</li> </ul>
<b>2.- Euskal Herriko zientzia erakunde eta zientifikoak</b>	
Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
<p><b>2.- Euskal Herriko zientziaren irudi nagusiak eta horien ekarpenak deskribatu, ekarpen horiek zer testuingurutan egin zituzten aztertuz eta zientziaren giza eraikuntzaren izaera balioetsiz.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Teoria zientifikoei eta horien protagonistei buruzko informazio historikoa aurkitu eta lan monografikoak egiten ditu.</li> <li>- Aurkikuntza zientifiko gehienak talde lanaren emaitza direla ulertzen du.</li> <li>- Euskal Herrian gaurkotatzen diren gai zientifikoei buruzko informazio biltzen du.</li> <li>- Euskal Herriko erakunde zientifiko-teknologiko garrantzitsuenetako batzuk identifikatzen ditu</li> </ul>
<b>3.- Osasuna, higieena eta elikadura</b>	
Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
<p><b>3.- Euskal Herrian lehen eta orain, elikadura, higieena eta osasun ohiturak zein izan diren eta diren ezagutu eta ohitura horiek barneratu eta eguneroko bizitzan erabiltzen jakin.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Osasunaren inguruan Euskal Herrian dagoen herri-usadioak eta tradizioa (sendabelarrak...) azaltzen daki eta tradizioko usadio horien artean mesedegarriak diren batzuk erabiltzen daki.</li> <li>- Bizi-portaera osasungarriak zein diren eta osasunarentzat kaltegarriak diren bizi-azturak ezagutzen ditu eta horien aurrean jarrera arduratsua eta kritikoa dauka.</li> <li>- Bizi-portaera osasungarriak estimatzen eta praktikatzen ditu.</li> <li>- Higieena eta garbitasun ohiturak zaintzen ditu.</li> <li>- Euskal Herriko osasun egoera ezagutzen du.</li> <li>- Osasuna zaintzeko zerbitzuak eskaintzen dituzten prestazioak ezagutzen eta erabiltzen daki.</li> <li>- Badaki zer den dieta orekatua. Dieta hori berearekin alderatzen du, eta ondorioak ateratzen ditu, elikadura ohiturak hobetzeko.</li> <li>- Euskal sukaldaritzaren hamar jaki prestatzen ditu.</li> <li>- Euskal sukaldaritzaren ezaugarri nagusiak egoki azaltzen ditu eta euskal sukaldari nagusiak ezagutzen ditu.</li> </ul>
<b>4.- Euskal Herriko ingurunemen arazoak</b>	
Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
<p><b>4.- Euskal Herriaren ikuspegitik, giza jardueraren eraginez ingurumenean sortutako arazo nagusiak deskribatu,</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskal Herriko airearen, uraren eta lurzoruen kutsadura mota nagusiak beren jatorriarekin eta ondorioekin lotzen ditu.</li> <li>- Inguruko paisaian ikus daitezkeen zenbait inpaktu aztertzen ditu.</li> </ul>

horien zergatiak edota ondorioak kontuan hartuz.	- Etxeko eta ikastetxeko energia balantze orokorrak egiteko gai da (baliabideen sarrera, erabilera eta irteera eta guzti).
<b>5.- Euskal Herria garapen iraunkorzaruntz</b>	
<b>Kompetentzia espezifikoa</b>	<b>Ebaluazio irizpideak</b>
<b>5.- Euskal Herrian garapen iraunkorrerako dauden estrategien berri izan, eta ikastetxean helburu horrekin garatzen diren jardueretan jarrera positiboz parte hartu eta lagundu.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Badaki Euskal Herrian zer espezie (fauna eta flora) dauden desagertzeko arriskuan, baita zer eremu babestu dauden ere.</li> <li>- Parke naturaletan eta ibilbide ekologikoetan antolatutako jarduerak egiten ditu.</li> <li>- Inguruaren kudeaketa iraunkorra lortzeko ikastetxeak parte hartzen duen jardueretan laguntzen du (hondakinak gaika bildu eta uzten ditu, birziklatutako gauzak erabiltzen ditu, energia aurrezten ahalegintzen da,... Ikastetxeetako Agenda 21).</li> </ul>

# INKESTA

## I.- IKASTOLEN CURRICULUM KOMUNAREN ARDATZAK

Kodea	Proposamena	Balorazioa					Hobetzeko proposamenak
		1	2	3	4	5	
	1.- Ikastola guztientzat proposatzen den Oinarrizko curriculum komunaren printzipioak baliagarriak dira gure ikastolarentzat eta prest gaude gure ikastolaren Hezkuntza Proiektuan horiek jasotzeko.						
	2.- Ikastola guztientzat proposatzen diren Oinarrizko Hezkuntzaren xedeak baliagarriak dira gure ikastolarentzat eta prest gaude gure ikastolaren Hezkuntza Proiektuan jasotzeko.						
	3.- Europako Parlamentuak eta Espainiako LOEk eta Frantziako Loi d'Orientation-ek proposatzen dituzten Oinarrizko konpetentziak eta Euskal Curriculumean proposatzen diren Hezkuntza konpetentzia orokorrak baliagarriak dira gure ikastolarentzat eta prest gaude gure ikastolaren Hezkuntza eta Curriculum proiektuan jasotzeko.						
	4.- Ikastola guztientzat proposatzen den Hizkuntza plangintza baliagarria da gure ikastolarentzat eta prest gaude gure ikastolaren Hezkuntza eta Curriculum proiektuan jasotzeko						

Seinala ezazu (X baten bidez) item bakoitzari buruzko zure iritzia, ondorengo eskalaren arabera: 1=Erabat desados; 2=Desados;3=Ez alde eta ez aurka;4=Ados;5=Erabat ados

## II.- EUSKAL CURRICULUM ESPEZIFIKOA: IKAS ARLOAK

Kodea	Proposamena	Balorazioa					Hobetzeko proposamenak
		1	2	3	4	5	
	1.- Hizkuntzak eta Literatura						
	2.- Teknologia						
	3.- Musika eta Dantza						
	4.- Plastika eta Ikus adierazpena						
	5.- Gorputz hezkuntza						
	6.- Gizarte Zientziak						
	7.- Natur eta Osasun Zientziak						

**Oharra:** Oharra: "Matematika" eta "Tutoretza-Orientazio" arloek ez dute Euskal Curriculum espezifikoari begira berariazko oinarrizko edukirik. "Mundu ikuskerak eta Erljiioak" gaiaren berariazko edukia "Gizarte Zientzien" arloan uztartu dira.

## III.- INKESTA ERANTZUTEN ERABILITAKO BIDEA

Nork parte hartu du? Titularra, Guraso, Zuzendaritza, Irakasle (HH, LH, DBH, DOBH), Beste Zenbat pertsona? Erantzunak emateko eta adosteko erabilitako bidea:

Data:

*Ikastolako Lehendakariaren sinadura*

*Ikastolaren zigilua*